




IKUSPEGIAK

Arteei eta Kultura Industriei buruzko
Estatistikaren datuen irakurketa analitikoa

2011



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



IKUSPEGIAK

Arteei eta Kultura Industriei buruzko
Estatistikaren datuen irakurketa analitikoa

2011



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:
1.a, 2013ko azaroa

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz



AURKIBIDEA

Sarrera	5
<hr/>	
I. EAEko ARTEEI ETA KULTURA INDUSTRIEI BURUZKO ZIFRA NAGUSIAK	6
1. Dimensio sektoriala	7
2. Titulartasuna	11
3. Lurraldea	14
4. Agenteen profilak	16
<hr/>	
II. ZEHARKAKO IRAKURKETAK	32
1. Asimetriak	33
2. Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria	46
3. Arteen eta kultura-industrien bolumen ekonomikoaren bilakaera	49
4. Euskarazko kultura	52
5. Ekimen publikoaren pisua eta harekiko mendekotasuna	57
6. Berritzea eta nazioartekotzea	60
7. Generoa	64
<hr/>	
III. LABURPENA	67
<hr/>	

SARRERA

Txosten hau Kulturaren Euskal Behatokiak 2012an izenburu berdinarekin argitaratu zuenaren jarraipena da. Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren hirugarren edizioak 2011ko jarduerari buruzko datuak biltzen ditu, eta, horietan oinarrituz, txosten honek intereseko hainbat gairi buruzko begirada espezifiko eta interpretatzailea eskaintzen du. Lehenengo aldiz, gainera, bilakaerari buruzko datu orokorrak ere baditu, interpretazioa testuinguruan kokatzen laguntzeko eta informazio aberatsagoa eskaintzeko.

Aurreko edizioan bezalaxe, begirada horiekin, sektorearen azterketa hutsa gainditu nahi dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) arteen eta kultura-industrien joerak eta ezaugarriak modu orokorrean behatu ahal izateko. Azterketa hiru atal handitan egituratzen da:

Lehenik, arteen eta kultura-industrien ezaugarri orokorrak azaldu ditugu, dimentsio sektoriala, titulartasuna, lurralde-banaketa eta sektore bakoitzeko agenteen profilak aztertuz.

Bigarrenik, zeharkako izaera duen azterketa egin dugu. Horrela, begirada zifra globaletara bideratu beharrean, alderdi zehatzetara zuzendu dugu; esaterako, sektoreetako asimetriak, erreproduzitzen den kulturaren eta zuzenean eskainitako kulturaren desberdintasuna, agenteen jarduera ekonomikoaren bilakaera, euskarak kultura-jardueran duen pisua, agente pribatuen mendetasun-maila publikoa, berritze- eta nazioartekotze-maila eta generoa.

Hirugarrenik, eta ondorio gisa, emaitza garrantzitsuenak jaso ditugu, laburbilduta.

Hortaz, Ikuspegiak. Arteei eta Kultura Industriei buruzko 2011ko Estatistikako datuen irakurketa analitikoa izenburuko txostenak EAEko kultura-errealitatea aztertzeko moduari jarraipena ematen dio, estatistika sektoriala oinarritzat hartuta eta zeharkako ikuspegia lortzea ahalbidetzen duten parametro analitikoak txertatuta.

I.

EAEko Arteei eta Kultura Industriei
buruzko zifra nagusiak


1. Dimentsio sektoriala

Arteei eta Kultura Industriei buruzko 2011ko Estatistika izeneko txostenak EAEko hainbat kultura-eremutako protagonista diren 641 agenteren buruzko informazioa ematen du¹. Errolda horretan, ondoren aipatuko diren sektoreen ekoizpenean, erakusketan eta merkataritzan jarduten duten agenteak kontabilizatzen dira:

- **Arte eszenikoetako** sektorea 109 programatzailek eta 80 ekoizlek osatzen dute. Programatzaileen artean aretoak (76) eta jaialdiak (33) daude. Ekoizleen kategoriak, antzerki-konpainia profesionalak (68) eta dantza-konpainia profesionalak (12) biltzen ditu.
- **Liburugintzaren** sektoreak 136 agente biltzen ditu, liburu-dendak (98) eta argitaletxeak (38) batuta.
- **Musikaren** sektorea, 156 agentekoa, zuzeneko musikan jarduten duten 125 agentek eta disko-industriako 31 agentek osatzen dute. Zuzeneko musikaren agenteen artean, 68 programatzaile publiko, 29 sustatzaile pribatu, 25 kontzertu-areto eta 3 orkestra daude; disko-industrian, berriz, 5 diskoetxe eta 26 disko-saltoki.
- **Ikusizko arteetako** 81 ekoizleak eta erakusketa-gelak honela banatzen dira: 51 erakusketa-areto, 26 arte-galeria eta 4 ekoizpen-gune.
- **ikus-entzunezkoen** sektoreko 79 agente..

Datuak 2009koekin alderatuz gero, ikusiko dugu estatistika osatzen duten guztizko agenteen kopurua murriztu egin dela, 34 gutxiago baitaude. Aldaketa nabarmenena liburu-denden artean eman da; izan ere, liburu-dendetako agente kopurua 2009an 120 izatetik 2011n 98 izatera igaro da. 2009an gertatzen zen bezala, oro har, agente erakusleak eta banatzaileak (% 67,9) argi eta garbi nagusitzen dira ekoizleekiko (% 32,1); alde hori, gainera, handiagoa izango litzateke emanaldi zinematografikoetarako aretoak kontuan hartuko balira.

1. irudia. Agenteak, sektorearen arabera. Absolutuak eta ehunekoak. 2011




¹ Kultura-sektore bakoitzeko estatistikaren berriazko argitalpenean, erroldan sartzeko kontuan hartutako irizpide metodologikoak eta lan-eremuaren fitxa teknikoak deskribatzen dira.

2. irudia. Agentek, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera. Absolutuak eta ehunekoak. 2009-2011

Sektorea	Agente-tipologia	2009		2011	
		Maizt.	%	Maizt.	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	84	12,4	80	12,5
	Programatzailea	106	15,7	109	17,0
Liburugintza	Argitaletxea	38	5,6	38	5,9
	Liburu-denda	120	17,8	98	15,3
Musika	Orkestra	3	0,4	3	0,5
	Programatzaile publikoa	74	11,0	68	10,6
	Sustatzaile pribatua	29	4,3	29	4,5
	Kontzertu-aretoa	24	3,6	25	3,9
	Diskoetxea	6	0,9	5	0,8
	Disko-saltokiak	26	3,9	26	4,1
Ikusizko arteak	Ekoizlea	5	0,7	4	0,6
	Erakusketa-gela	51	7,6	51	8,0
	Arte-galeria	26	3,9	26	4,1
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	83	12,3	79	12,3
Guztira		675	100,0	641	100,0

Termino absolutuetan, diru-sarreraren eta gastuen balantze orokorra positiboa da, 14,6 milioi eurokoa (diru-sarreraren % 3,5); hortaz, 2009ko datuek zuten balantzearen oso antzekoa (14,3 milioi euro; diru-sarreraren % 3,1). Ikus-entzunezkoen industriak biltzen du bolumen ekonomiko handiena (diru-sarreraren % 47,1 eta guztizko gastuen % 46,9), baina, 2009ko datuekin alderatzen badugu, ikus dezakegu industria horren garrantzia zertxobait igo egin dela. Aipatu behar da agenteen % 29,5 biltzen duen arte eszenikoetako sektoreak guztizko diru-sarreraren eta gastuen % 11 inguru biltzen duela.

3. irudia. Agenteen diru-sarrerak eta guztizko gastuak, sektorearen arabera. Milioi eurotan eta ehunekoetan. 2009-2011




4. irudia. Diru-sarrerak, gastuak eta balantzea, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera. Milako eurotan eta ehunekoetan. 2011

Sektorea	Agente-tipologia	Diru-sarrerak	Gastuak	Balantzea	Guztizko diru-sarreraren gaineko ehunekoa
		Milako eurotan	Milako eurotan	Milako eurotan	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	12.569,4	12.211,9	357,5	2,8
	Programatzailea	34.938,4	35.308,4	-370,0	-1,1
Liburugintza	Argitaletxea	34.963,6	31.325,8	3.637,8	10,4
	Liburu-denda	54.299,1	51.390,4	2.908,7	5,4
Musika	Orkestra	17.751,2	17.751,2	0,0	0,0
	Programatzaile publikoa	17.850,1	17.912,6	-62,5	-0,4
	Sustatzaile pribatua	26.499,9	26.331,6	168,3	0,6
	Kontzertu-aretoa	4.685,1	4.350,2	334,9	7,1
	Diskoetxea	2.148,0	2.084,8	63,2	2,9
	Disko-saltokiak	4.059,3	3.882,8	176,5	4,3
Ikusizko arteak	Ekoizlea	3.440,2	3.440,2	0,0	0,0
	Erakusketa-gela	8.779,4	8.773,4	6,0	0,1
	Arte-galeria	2.309,8	2.370,9	-61,1	-2,6
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	199.386,1	191.914,2	7.471,9	3,7
Guztira		423.679,6	409.048,4	14.631,2	3,5

Agente pribatuen nagusitasuna duten tipologiaren irabazi-marjinek agerian uzten dituzte zailtasun-sintomak: % 4,3 disko-saltokientzat, % 0,6 kontzertu-sustatzaile pribatuentzat, % 7,1 kontzertu-aretoentzat, % 2,8 inguru arte eszenikoetako konpainientzat, % 5,4 liburu-dendentzat, % 3,7 ikus-entzunezkoentzat eta -% 2,6ko emaitza negatiboa arte-galerientzat.

5. irudia. Langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak), sektorearen arabera. Absolutuak eta ehunekoak. 2011



6. irudia. Langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak), sektorearen eta agente-tipologiaren arabera. Absolutuak eta ehunekoak. 2009-2011

Sektorea	Agente-tipologia	2009		2011		Bilakaera (2009-2011)	
		Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	234,8	7,5	186,4	6,4	-48,4	-20,6
	Programatzailea	218,4	6,9	217,7	7,5	-0,7	-0,3
Liburugintza	Argitaletxea	196,9	6,3	167,6	5,7	-29,3	-14,9
	Liburu-denda	350,0	11,1	307,8	10,5	-42,2	-12,1
Musika	Orkestra	211,0	6,7	214,2	7,3	+3,2	+1,5
	Programatzaile publikoa	90,6	2,9	71,1	2,4	-19,5	-21,5
	Sustatzaile pribatua	144,6	4,6	133,2	4,6	-11,4	-7,9
	Kontzertu-aretoa	63,3	2,0	61,5	2,1	-1,8	-2,8
	Diskoetxea	15,5	0,5	16,5	0,6	+1	+6,5
	Disko-saltokiak	40,2	1,3	34,5	1,2	-5,7	-14,2
Ikusizko arteak	Ekoizlea	26,0	0,8	24,0	0,8	-2	-7,7
	Erakusketa-gela	43,0	1,4	49,8	1,7	+6,8	15,8
	Arte-galeria	43,9	1,4	36,9	1,3	-7	-15,9
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	1.465,6	46,6	1.396,7	47,9	-68,9	-4,7
Guztira		3.143,8	100,0	2.917,9	100,0	-225,9	-7,2

Guztira, 2.917,9 langile² zenbatu dira kultura-agenteen artean; 2009an baino 225,9 gutxiago. Sektore bakoitzeko langileek guztizkoarekiko duten garrantziaren banaketa sektorearen beraren garrantzi ekonomikoaren antzekoa da. Ikus-entzunezko sektorea da langileen ehuneko handiena metatzen duena (% 48); gainerako sektoreetan (musika, liburugintza eta arte eszenikoak), metaketa % 14-18 da, eta ikusizko arteetako sektorea da enplegu gutxien metatzen duena (% 4). Oro har, sektoreetako enpleguak enplegu orokorrekiko dituen aldeak ez du aldaketa esanguratsurik izan 2009ko datuekin erkatuta.


² Txosten osoan, langile kopuruari erreferentzia egiten zaionean, urtebetean lanaldi osoan ari ziren langileen kopurua adierazten da.

2. Titulartasuna

Hiru titulartasun hartu dira kontuan: titulartasun publikoko agenteak (nagusiki Administrazio Publikoek partaidetutako erakunde guztiak edozein dela ere haien izaera juridikoa); titulartasun pribatuko agenteak (enpresa-izaera eta irabazi-asmoa dutenak)–, eta, azkenik, elkarteak eta fundazioak (irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak).

2009an bezala, 2011n ere, estatistika osatzen duten hamar agentetik ia sei titulartasun pribatukoak dira. Enpresa pribatuarekin lotutako hainbat agente (liburu-dendak, ikus-entzunezkoen ekoizleak eta arte eszenikoetako ekoizleak) kopuruz ugari direlako gertatzen da hori. Hala eta guztiz ere, aipatu behar da agente pribatuen garrantzia zertxobait jaitsi egin dela, 2009an % 60,7 izatetik 2011n % 58,0 izatera igaro baitira, agente publikoen eta elkarten nahiz fundazioen garrantziaren onurarako (% 31,1etik % 32,3ra eta % 8,1etik % 9,7ra, hurrenez hurren).

7. irudia. Agenteak, titulartasunaren arabera. Absolutuak eta ehunekoak. 2011




Agente-tipologiak, neurri handi batean, sektore bakoitzeko merkatuaren logikaren eta esku-hartze publikoaren mende daude. Izan ere, liburu-denden, diskoetxeen, disko-saltokien eta arte-galerien kasuan, agente guztiak pribatuak dira; arte eszenikoetako ekoizleen, argitaletxeen, kontzertu-sustatzaileen, kontzertu-aretoen eta ikus-entzunezkoen ekoizleen kasuan, agente pribatuak nagusitzen dira, agente publikoak, elkarteak eta fundazioak salbuetsita; azkenik, arte eszenikoetako eta musika programatzaileen eta ikusizko arteetako ekoizleen eta erakusketa-gelen kasuan, agente publikoak nagusitzen dira, nahiz eta elkarteak eta fundazioak ere badauden.

8. irudia. Agentek, sektorearen, agente-tipologiaren eta titulartasunaren arabera.
Absolutuak eta ehunekoak. 2009-2011

Sektorea	Agente-tipologia	2009				2011			
		Guztizko agent.	Pub.	Prib.	Elk./fund.	Guztizko agent.	Pub.	Prib.	Elk./fund.
		Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
Arte eszenikoak	ekoizlea	84	1,2	81,0	17,9	80	1,3	73,8	25,0
	Programatzailea	106	81,1	3,8	15,1	109	82,6	2,8	14,7
Liburugintza	Argitaletxea	38	0,0	94,7	5,3	38	0,0	94,7	5,3
	Liburu-denda	120	0,0	100,0	0,0	98	0,0	100,0	0,0
Musika	Orkestra	3	100,0	0,0	0,0	3	100,0	0,0	0,0
	Programatzaile publikoa	74	100,0	0,0	0,0	68	97,1	0,0	2,9
	Sustatzaile pribatua	29	0,0	72,4	27,6	29	0,0	65,5	34,5
	Kontzertu-aretoa	24	0,0	91,7	8,3	25	0,0	92,0	8,0
	Diskoetxea	6	0,0	100,0	0,0	5	0,0	100,0	0,0
	Disko-saltokiak	26	0,0	100,0	0,0	26	0,0	100,0	0,0
Ikusizko arteak	ekoizlea	5	60,0	0,0	40,0	4	75,0	0,0	25,0
	Erakusketa-gela	51	82,4	0,0	17,6	51	84,3	0,0	15,7
	Arte-galeria	26	0,0	100,0	0,0	26	0,0	100,0	0,0
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	83	1,2	97,6	1,2	79	1,3	97,5	1,3
Guztira		675	31,1	60,7	8,1	641	32,3	58,0	9,7


Agente pribatuen nagusitasuna ez da hain argi islatzen diru-sarreraren eta gastuen banaketan; izan ere, agente publikoek diru-sarreraren % 47,9 eta gastuen % 48,3 biltzen dute. Era berean, ikuspegi ekonomikotik begiratuta, elkarteeak eta fundazioek eragin txikia dute aztertutako kultura-agente guztietan.

9. irudia. Guztizko diru-sarrerak eta gastuak, titulartasunaren arabera. Milioi eurotan eta ehunekotan. 2009-2011



Enpleguaren ikuspegitik, liburugintzaren eta ikus-entzunezko ekoizleen sektoreek sortzen duten okupazio-bolumen handiaren ondorioz, guztizko enpleguaren erdia baino gehiago titulartasun pribatuko agenteetan biltzen da. Dena den, enplegu publikoak ia bere horretan jarraitzen du. Edonola ere, kultura-arloko sektore pribatuan, enpleguak beheranzko joera du, langileen % 12,7 galdu baitu bi urtean.


10. irudia. Langileak, titulartasunaren arabera. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak. Absolutuak eta ehunekoak. 2009-2011



3. Lurraldea


EAEko kultura-agenteen lurralde-banaketak egituratzen duen mapan, agenteen erdiak Bizkaian biltzen dira; lurralde historikoak, gainera, 2009ko datuekin alderatuta, garrantzia irabazi du. Arabak, aldiz, galdu egin du, eta agenteen % 10,6 kokatzen da bertan. Gipuzkoak, berriz, bere horretan eusten dio. Nolanahi ere, agenteen ratioari begiratuz gero, biztanleriari dagokionez, Gipuzkoa da buru (35,9ko ratioarekin 100.000 biztanleko), Bizkaiarekin (27,7) eta Arabarekin (21,2) alderatuta.

11. irudia. Agentek, lurralde historikoaren arabera. Datu absolutuak, ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009-2011




Agenteen erdiak hiriburuetan biltzen dira: Bizkaiko agenteen % 48,1 Bilbon kokatzen da, eta Gipuzkoan kokatutako % 42,7 Donostian. Araban, bere lurralde-konfigurazioa dela-eta, Gasteizen kokatzen diren agenteak % 76,5 dira.

12. irudia. Agentek, hiriburuko kokapenaren eta lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak. 2009-2011



Termino ekonomikoetan, Bizkaiak du garrantzi handiena, eta kultura-agenteeek sortzen dituzten diru-sarreraren % 69,6 biltzen du (2009an, % 68,7 bildu zuen). Lurralde horretan kokatzen dira, halaber, pisu ekonomiko handiena duten sektoreetako agente nagusiak (ikus-entzunezkoak, liburugintza, arte eszenikoetako programatzaileak eta musika-sustatzaileak). Horren ondorioz, kultura-enpleguen % 65,5 Bizkaiari kokatzen da (2009an, % 62,2). Agente kopuruaren pisu erlatiboaren eta kultura-enpleguaren arteko erlazioa kontuan hartuta, Gipuzkoako eta Arabako enpresen dimentsioa txikia da: % 39,5 agente eta % 28,5 enplegu Gipuzkoan, eta % 10,6 agente eta % 6,0 enplegu Araban.

13. irudia. Agenteeak, lurralde historikoaren arabera, diru-sarrerak (milioi euro) eta langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) kontuan hartuta. Absolutuak eta ehunekoak. 2009-2011



4. Agenteen profilak


• Arte eszenikoetako ekoizleak

Arte eszenikoetako ekoizle gehienak Bizkaian (% 41,3) eta Gipuzkoan (% 43,8) daude, nahiz eta Araban areagotu egin den haien presentzia, % 13,1 izatetik % 15 izatera igarota. 100.000 biztanleko ekoizleen ratioak kontuan hartzen baditugu, Gipuzkoak du ratorik handiena (5,0); Bizkaian, aldiz, 2,9ra jaitsi da, eta Arabakoa 3,7 da.

Jarduerarik handiena Bizkaian dago; ikuskizunen % 46,8 egin da bertan, Gipuzkoan % 39,6, eta Araban % 13,5. Nolanahi ere, nahiz eta Araban agente gutxiago dagoen, eta, ondorioz, jardueramaila ere txikiagoa izan, Arabako ikuskizunen ratioa Bizkaikoaren oso antzekoa da. Ratorik handiena, nolanahi ere, Gipuzkoakoa da (6,2).

Ez dago aldaketa oso nabarmenik erkatutako bi urteetan; hala ere, ekoizpen-jarduera Bizkaian biltzeko nolabaiteko joera antzematen da.

14. irudia. Arte eszenikoetako ekoizleak eta ekoiztutako ikuskizunak, lurralde historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa eta ratioa 100.000 biztanleko. 2009-2011



2009an nahiz 2011n, EAEko arte eszenikoetako agente ekoizleen bi herenak 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak izan ditu; sektore horretan, beraz, konpainia txikiak dira protagonista. 2011n, % 18,8k 100.000-250.000 euroko diru-sarrerak izan ditu, eta gainerako % 16,3ak 250.000 eurotik gorakoak. Diru-sarreraren mailaren hierarkia hori agente-talde bakoitzak biltzen dituen diru-sarreraren ehunekoarekiko alderantziz proportzionala da; beraz, 500.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituen gutxiengoak (% 6,3) sektore osoak sortzen dituen diru-sarreraren 10 eurotik 4 biltzen ditu.

Langileen egiturak ahulak dira. Dimentsio handieneko agenteek 6 langile dituzte batez beste, baina agente gehienek (% 65) 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu, eta langileen batez bestekoa 1,1 da agente bakoitzeko.

2009tik 2011ra izandako bilakaerak erakusten duenez, egitura ahulen kopurua igo egin da. Izan ere, 2009an, agenteen % 3,6k soilik zeukan langile bat baino gutxiago; 2011n, aldiz, zifra hori % 27,5era irtisten da.

15. irudia. Arte eszenikoetako ekoizleak, diru-sarreraren, guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2011

	2009					2011				
	Agenteak		Diru-sarrerak		Langileak	Agenteak		Diru-sarrerak		Langileak
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
500.000 € baino gehiago	5	6,0	38,5	12,7	6,0	5	6,3	41,1	16,0	6,0
250.001 €-tik 500.000 €-ra	7	8,3	19,5	14,2	4,8	8	10,0	22,5	22,7	5,3
100.000 €-tik 250.000 €-ra	18	21,4	22,9	33,2	4,3	15	18,8	21,2	31,9	4,0
100.000 € baino gutxiago	54	64,3	19,1	39,9	1,7	52	65,0	15,1	29,4	1,1
Guztira	84	100,0	100,0	100,0	2,8	80	100,0	100,0	100,0	2,3


16. irudia. Arte eszenikoetako ekoizleak, langile kopuruaren (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2011

	2009		2011	
	Maizt.	%	Maizt.	%
3 langile baino gehiago	27	32,1	20	25,0
1-3 langile	54	64,3	38	47,5
1 langile baino gutxiago	3	3,6	22	27,5
Guztira	84	100,0	80	100,0

• Arte eszenikoetako programatzaileak

Arte eszenikoetako programatzaileen % 45,9 Bizkaian biltzen da, Gipuzkoan % 41,3, eta Araban % 12,8. Alabaina, 100.000 biztanleko programatzaile-ratio handiena duen lurraldea Gipuzkoa da (6,4). Datuak 2009koekin alderatzen baditugu, esan dezakegu programatzaileen banaketak ez duela aldaketa handirik izan; aitzitik, jarduerari dagokionez, ikusten da Bizkaian biltzeko joera dagoela, arte eszenikoetako emanaldien % 55,4 Bizkaian programatu baitzen 2011n. Gipuzkoak, jarduerari dagokionez, garrantzia galdu du, emanaldien % 34,5 eskaintzetik % 29,1 eskaintzera igaro baita.

17. irudia. Arte eszenikoetako programatzaileak eta programatutako emanaldiak, lurralde historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa eta ratioa 100.000 biztanleko. 2009-2011



100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten aretoen ehunekoa nabarmen igo da, % 50,7 izaketetik % 64,5 izatera igaro baita. Aretoen % 10,5ek soilik ditu 250.00 eurotik gorako diru-sarrerak (2009an, % 14k). Profil horretan, diru-sarreraren % 70,5 eta ikusleen % 60,2 biltzen dira.

Urtean 5.000 ikusle baino gutxiago dituzten EAEko aretoak % 73,7 dira, eta aretoen % 13,2k baino ez ditu 10.000 ikusletik gora. Datu horiek 2009koen oso antzekoak dira.

18. irudia. Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, diru-sarreraren, guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren eta ikusleen arabera. 2009-2011

	2009				2011			
	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	4	5,6	60,3	52,6	5	6,6	65,4	55,3
500.001 €-tik 1.000.000 €-ra	2	2,8	7,6	8,1	0	0,0	0,0	0,0
250.001 €-tik 500.000 €-ra	4	5,6	6,0	5,5	3	3,9	5,1	4,8
100.000 €-tik 250.000 €-ra	25	35,2	16,6	21,1	19	25,0	14,9	16,2
100.000 € baino gutxiago	36	50,7	9,5	12,7	49	64,5	14,6	23,8
Guztira	71	100,0	100,0	100,0	76	100,0	100,0	100,0

19. irudia. Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, ikusle-tarteen arabera. 2009-2011

	2009		2011	
	Maizt.	%	Maizt.	%
30.000 ikusle baino gehiago	5	7,0	5	6,6
10.001-30.000 ikusle	3	4,2	5	6,6
5.000-10.000 ikusle	12	16,9	10	13,2
5.000 ikusle baino gutxiago	51	71,8	56	73,7
Guztira	71	100	76	100,0

2009an gertatzen zen bezala, diru-sarreraren araberako jaialdien banaketa areto programatzaileena baino parekatuagoa da; horrela, % 45,5ek 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu, % 30,3k 100.000-250.000 euro artekoak, eta gainerako % 24,2ak 250.000 eurotik gorakoak.


20. irudia. Arte eszenikoetako jaialdiak, diru-sarreraren eta guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2009-2011

	2009			2011		
	Agenteak		Diru-sarrerak	Agenteak		Diru-sarrerak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
250.000 € baino gehiago	7	20,0	81,5	8	24,2	85,0
100.000 €-tik 250.000 €-ra	11	31,4	13,1	10	30,3	9,8
100.000 € baino gutxiago	17	48,6	5,4	15	45,5	5,2
Guztira	35	100,0	100,0	33	100,0	100,0

• Argitaletxeak

Argitaletxeen sektorea batez ere Bizkaian (% 50,0) eta Gipuzkoan (% 44,7) dago kokatuta; sektore horrek Araban duen presentzia, berriz, ahula da. Bestalde, 100.000 biztanleko ratioari begiratuz gero, Gipuzkoan gehiago daude Bizkaian baino.

21. irudia. Argitaletxeak eta berritasun gisa argitaratutako liburuak, lurralde historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009-2011



2009ko emaitzetan bezala, argitaletxeak diru-sarreraren arabera banatzean ikusten da tamaina txikiko argitaletxez osatutako oinarri bat dagoela (% 34,2 zehazki, 100.000 eurotik beherako diru-sarrerekin eta batez beste 1,5 langilerekin), beste muturrean tamaina handiagoko argitaletxeen taldea dagoela (% 31,6, 1.000.000 eurotik gorako diru-sarrerekin, eta batez beste 9,7 langilerekin), eta erdiko tartetan ez dagoela hainbesteko agente-metaketa.

22. irudia. Argitaletxeak, diru-sarreraren, liburu-salmentagatiko diru-sarreraren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2011


	2009					2011				
	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
1.000.000 € baino gehiago	11	28,9	82,3	64,6	11,6	12	31,6	86,7	69,5	9,7
500.001 €-tik 1.000.000 €-ra	6	15,8	12,0	15,5	5,1	3	7,9	8,0	6,8	3,8
250.001 €-tik 500.000 €-ra	3	7,9	2,7	5,3	3,5	4	10,5	2,7	7,1	3,0
100.000 €-tik 250.000 €-ra	14	36,8	2,8	13,2	1,9	6	15,8	1,2	4,9	1,4
100.000 € baino gutxiago	4	10,5	0,3	1,4	0,7	13	34,2	1,5	11,7	1,5
Guztira	38	100,0	100,0	100,0	5,2	38	100,0	100,0	100,0	4,4

• Liburu-dendak

EAEko lurralde historikoetako liburu-denden banaketak oso aldaketa gutxi izan ditu 2009ko egoerarekiko alderatuta. 2011n, liburu-denden % 61,3 Bizkaian biltzen da; ehuneko hori askoz ere handiagoa da Gipuzkoakoa (% 28,6) eta Arabakoa (% 10,2) baino. Era berean, Bizkaiak du 100.000 biztanleko liburu-denda kopuru handiena (5,2); ondoren Gipuzkoakoak (4,0) eta, azkenik, Arabak (3,1).

Liburu salmentak lotura zuzena du lurralde bakoitzean dagoen agenteen kopuruarekin. Horrela, Bizkaian saldu da guztizko liburuaren % 57,9 (garrantzia 2,9 puntu igo da, 2009arekin alderatzen bada), Gipuzkoan % 26,6 eta Araban gainerako % 15,5a. 100.000 biztanleko saldutako liburu kopuruari dagokionez, nabarmentzekoa da Arabak Gipuzkoak baino ratio handiagoa duela, nahiz eta liburu-denda gutxiago izan.

23. irudia. Liburu-dendak eta saldutako liburuak, lurralde historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009-2011



Kateetako kide diren liburu-denden eta liburu-denda independenteen arteko bereizketa aintzat hartuz gero, bi urtean aldaketa esanguratsuak izan direla egiazta daiteke. Krisialdi ekonomikoa eta sektorearen eraldaketak direla medio, kateetako kide diren liburu-dendek hobeto eutsi diote egoerari, eta haien presentzia areagotu egin da. Independenteeek, aldiz, gehiago pairatzen dituzte egungo inguruabarrak. Kateetako kide diren liburu-dendak agenteen % 22,5 izatetik % 27,6 izatera igaro dira; liburu-salmenta bakoitzeko diru-sarreraren % 63,2 esparru horretakoak dira, bai eta enpleguaren % 52,2 ere. Liburu-denda independenteak une larriagoak igarotzen ari dira: nahiz eta agenteen % 72,4 diren, guztizko diru-sarreraren soilik % 36,8 biltzen dute liburu-salmentaren bidez. Agenteen kopurua jaitsi egin da; hain zuzen ere, liburu-denda independente ugarik utzi duelako jarduera, edota negozioa birbideratu duelako, diru-sarreretan liburu-salmentaren garrantzia murriztuta.

Diru-sarreraren mailaren arabera sailkapenak are gehiago baieztatzen du krisiaren eta sektorearen eraldaketen biktima nagusiak liburu-dendak direla diogen hipotesia. Agente kopuruaren murrizketa 250.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten liburu-dendetan gertatu da.

Bestalde, liburu-salmentagatiko fakturazioa metatu egin da: liburu-salmentagatiko diru-sarrera handienak (% 57,5) gehien fakturitzen duten establezimenduek izan dituzte (% 15,3). Liburu-denda horien % 86,7 kateetako kide da.

24. irudia. Liburu-dendak, tipologiaren, guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2011

	2009					2011				
	Agenteak		Liburu-salmenta-gatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu-salmenta-gatiko diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
Kateetako kide diren liburu-dendak	27	22,5	60,2	48,8	6,3	27	27,6	63,2	52,2	6,0
Liburu-denda independenteak	93	77,5	39,8	51,2	1,9	71	72,4	36,8	47,8	2,1
Guztira	120	100,0	100,0	100,0	2,9	98	100,0	100,0	100,0	3,1

25. irudia. Liburu-dendak, diru-sarreraren arabera eta liburu-salmentagatiko diru-sarreraren arabera. 2009-2011

	2009			2011		
	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
1.000.000 € baino gehiago	15	12,5	53,5	15	15,3	57,5
500.001 €-tik 1.000.000 €-ra	12	10,0	14,8	11	11,2	14,7
250.001 €-tik 500.000 €-ra	29	24,2	16,5	29	29,6	16,4
250.000 € baino gutxiago	64	53,3	15,2	43	43,9	11,4
Guztira	120	100,0	100,0	98	100,0	100,0

26. irudia. Liburu-dendak, diru-sarreraren eta tipologiaren arabera. 2009-2011


	2009				2011			
	Agenteak		Kateetako kide diren liburu-dendak	Liburu-denda independenteak	Agenteak		Kateetako kide diren liburu-dendak	Liburu-denda independenteak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	15	12,5	53,5	15	15,3	86,7	13,3	
500.001 €-tik 1.000.000 €-ra	12	10,0	14,8	12	11,2	36,4	63,6	
250.001 €-tik 500.000 €-ra	29	24,2	16,5	29	29,6	27,6	72,4	
250.000 € baino gutxiago	64	53,3	15,2	64	43,9	4,7	95,3	
Guztira	120	100,0	100,0	120	98	100,0	27,6	72,4

• Musika-programatzaileak


Bizkaian biltzen dira sustatzaile pribatu (% 55,2) eta kontzertu-areto (% 48,0) gehienak; Gipuzkoan, aldiz, esanguratsuagoa da programatzaile publikoen presentzia (% 47,1). 2009ko datuekin alderatuta, ez dago aldaketa esanguratsurik; nolanahi ere, aipatzeko modukoa da sustatzaile pribatuen metaketa handiagoa dela Bizkaian.

Erlazio zuzena dago Bizkaian gertatzen den musika-programatzaileen metaketaren eta lurralde horretan programatutako kontzertu kopuruaren artean; izan ere, Bizkaian programatu dira kontzertu guztien % 47,2. Dena den, nabarmendu behar da Gipuzkoan (336,8) eta Araban (254,3) igo egin dela 100.000 biztanleko ratioa.

27. irudia. Musika-programatzaile publikoak, sustatzaile pribatuak eta kontzertu-aretoak, lurralde historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009-2011



28. irudia. Programatutako kontzertuak, lurralde historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa eta ratioa 100.000 biztanleko. 2009-2011



Musika-programatzaile publikoen % 10ek baino gutxiagok ditu urteko 1.000.000 eurotik gorako diru-sarrerak, nahiz eta sektore horretan lortutako diru-sarrera guztien % 60,0 bildu. Beste muturrean, 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten programatzaileak daude; horiek agente guztien erdiak baino gehiago izan arren (% 52,9), haien diru-sarrerak guztizkoaren % 11,0 dira. Programaziora bideratutako aurrekontu publikoen murrizketaren ondorioz agenteen kopuruan izandako beherakadak programatzaile publiko txikiei eragin die batez ere.

Ikusleen ehunekoari dagokionez, agenteen % 14,7k (250.000 eurotik gorako diru-sarrerekin) 2011n EAEn programatzaile publikoek programatutako kontzertuetara bertaratu diren ikusleen % 61,5 biltzen du.

29. irudia. Programatzaile publikoak, diru-sarreren tarteen, guztizkoarekiko diru-sarreren ehunekoaren eta ikusleen arabera. 2009-2011

	2009				2011			
	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	5	6,8	54,9	25,0	6	8,8	60,0	41,6
250.001 €-tik 1.000.000 €-ra	7	9,5	16,5	50,6	4	5,9	10,2	19,9
100.000 €-tik 250.000 €-ra	21	28,4	16,7	14,2	22	32,4	18,8	26,8
100.000 € baino gutxiago	41	55,4	11,9	10,3	36	52,9	11,0	11,7
Guztira	74	100,0	100,0	100,0	68	100,0	100,0	100,0

30. irudia. Programatzaile publikoak, ikusleen eta guztizkoarekiko ikusleen ehunekoaren arabera. 2009-2011

	2009			2011		
	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
100.000 ikusle baino gehiago	5	6,8	58,2	4	5,9	42,4
50.001-100.000 ikusle	3	4,1	12,0	5	7,4	24,0
10.001-50.000 ikusle	13	17,6	15,9	18	26,5	22,3
5.000-10.000 ikusle	15	20,3	7,9	10	14,7	5,0
5.000 ikusle baino gutxiago	38	51,4	5,9	31	45,6	6,3
Guztira	74	100,0	100,0	68	100,0	100,0

EAEko sustatzaile pribatuen % 41,3k 500.000 eurotik gorako diru-sarrerak ditu, eta agente-tipologia horrek sortutako guztizko diru-sarreren % 94,7 biltzen du. 2009an ikusten zen bolumen

ekonomikoaren metaketaren antzekoa da hori. Nolanahi ere, adierazi behar da sustatzaile pribatuen artean igo egin dela 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenen kopurua, eta jaitsi egin dela diru-kopuru horren eta milioi erdi eurora arteko diru-sarrerak dituzten agenteen kopurua. Beraz, ondoriozta dezakegu sustatzaile txiki batzuk zailtasunak izaten ari direla, eta nabarmen murriztu dutela fakturazioa.

31. irudia. Sustatzaile pribatuak, diru-sarreraren eta guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoen arabera. 2009-2011

	2009		2011				
	Agenteak		Diru-sarrerak		Agenteak		Diru-sarrerak
	Maizt.	%	Maizt.	Maizt.	%	%	
1.000.000 € baino gehiago	4	13,8	71,1	5	17,2	74,5	
500.001 €-tik 1.000.000 €-ra	7	24,1	22,3	7	24,1	20,2	
100.000 €-tik 500.000 €-ra	9	31,0	5,1	2	6,9	1,6	
100.000 € baino gutxiago	9	31,0	1,5	15	51,7	3,7	
Guztira	29	100,0	100,0	29	100,0	100,0	

Kontzertu-aretoen sailkapena diru-sarrerak kontuan hartuta eginez gero, ikus daiteke aldaketa nabarmenak daudela 2009arekiko, eta joera argiak daudela. EAEko kontzertu-aretoen % 56,0k 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu, baina agente-tipologia horrek sortutako guztizko diru-sarreraren % 7,3 eta ikusleen % 26,8 soilik biltzen ditu. Bestalde, 250.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten aretoak guztizko agenteen % 24 dira, baina guztizko diru-sarreraren % 74,7 eta ikusleen % 52,4 biltzen dituzte.

32. irudia. Kontzertu-aretoak, diru-sarreraren eta guztizkoarekiko ikusleen ehunekoen arabera. 2009-2011

	2009				2011				
	Agenteak		Diru-sarrerak		Agenteak		Diru-sarrerak		Ikusleak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	
250.000 € baino gehiago	5	20,8	74,0	52,0	6	24,0	74,7	52,4	
100.000-250.000 €	7	29,2	21,5	29,0	5	20,0	18,0	20,8	
100.000 € baino gutxiago	12	50,0	4,5	19,0	14	56,0	7,3	26,8	
Guztira	24	100,0	100,0	100,0	25	100,0	100,0	100,0	

EAEen dauden 25 kontzertu-aretoen % 44k 5.000 ikusle baino gutxiago izan ditu 2011n, % 20k 5.000-10.000 ikusle izan ditu, eta % 36k 10.000 ikusle baino gehiago, eta guztizko ikusleen % 70,3 bildu du. 2009ko datuekin alderatuta, ikus dezakegu aldaketak gertatu direla: aretoen kopurua murrizteko joera dago, 5.000 ikusle izatetik 10.000 ikusle izatera igaro da, eta muturretan igoera izan da (10.000 ikusle baino gehiago eta 5.000 ikusle baino gutxiago).


**33. irudia. Kontzertu-aretoak, ikusle-tarteen eta guztizkoarekiko ikusleen ehunekoen arabera.**
2009-2011

	2009			2011		
	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
10.000 ikusle baino gehiago	4	16,7	54,0	9	36,0	70,3
5.000-10.000 ikusle	11	45,8	34,0	5	20,0	13,4
5.000 ikusle baino gutxiago	9	37,5	12,0	11	44,0	16,2
Guztira	24	100,0	100,0	25	100,0	100,0

• **Industria diskografikoa**

EAE n soilik bost diskografia daude; horietatik hiru Bizkaian daude, eta bi Gipuzkoan.

34. irudia. Diskoetxeak, lurralde historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009-2011



300.000 eurotik gorako diru-sarrerak zituzten diskoetxeen eta diru-kopuru horretatik beherako diru-sarrerak zituztenen artean, 2011 n hautsi egin da 2009an zegoen oreka, agente bat gutxiago baitago. Diru-sarreraren bolumen handieneko diskoetxeek guztizko diru-sarreraren % 86,3 biltzen dute.


35. irudia. Diskoetxeak, diru-sarreraren, guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2011

	2009					2011				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
300.000 € baino gehiago	3	50,0	76,4	61,3	3,2	3	60,0	86,3	74,0	4,1
300.000 € baino gutxiago	3	50,0	23,6	38,7	2,0	2	40,0	13,7	26,0	2,2
Guztira	6	100,0	100,0	100,0	2,6	5	100,0	100,0	100,0	3,3

• Disko-saltokiak

2009an bezala, disko-saltokien erdiak Gipuzkoan daude, % 42,3 Bizkaian eta gainerako % 7,7a Araban.

36. irudia. Disko-saltokiak lurralde historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009-2011



EAEan, gehiago dira kateetako kide diren disko-saltokiak (% 57,7), disko-saltoki independenteak baino (% 42,3). Gainera, aurreneko horiek guztizko diru-sarreraren % 77,4 eta enpleguaren % 68,1 biltzen dute; 2009ko metaketa-maila baino txikiagoa ageri da, beraz.

Erlazio garbia dago disko-saltokien diru-sarreraren mailaren arabeko sailkapenaren eta kateetako kide izatearen artean: zenbat eta handiagoa izan diru-sarreraren maila, orduan eta handiagoa da kateetako kide diren agenteen ehunekoa. Datuak 2009koekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu murriztu egin dela 250.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten saltokien kopurua, eta igo egin dela 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenena.

37. irudia. Disko-saltokiak, diru-sarreraren, guztizkoaren gaineko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2011

	2009					2011				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
Kateetako kide diren disko-saltokiak	15	57,7	85,9	65,3	1,7	15	57,7	77,4	68,1	1,6
Disko-saltoki independenteak	11	42,3	14,1	34,7	1,3	11	42,3	22,6	31,9	1,0
Guztira	26	100,0	100,0	100,0	1,5	26	100,0	100,0	100,0	1,3

38. irudia. Disko-saltokiak, diru-sarreraren tarteen eta tipologiaren arabera. 2009-2011


	2009				2011			
	Agenteak		Kateetako kide diren disko-saltokiak	Disko-saltoki independenteak	Agenteak		Kateetako kide diren disko-saltokiak	Disko-saltoki independenteak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
250.000 € baino gehiago	4	15,4	75,0	25,0	2	7,7	100,0	0,0
100.000 €-tik 250.000 €-ra	8	30,8	75,0	25,0	8	30,8	62,5	37,5
100.000 € baino gutxiago	14	53,8	42,9	57,1	16	61,5	50,0	50,0
Guztira	26	100,0	57,7	42,3	26	100,0	57,7	42,3

• **Ikusizko arteak produzitzeko guneak eta erakusketa-gelak**


Ikusizko arteen erakusketa-gelei eta galeriei dagokienez, Bizkaia da agente gehien dituen lurraldea; galerien kasuan bereziki, % 69,2 lurralde horretan baitago. 2009tik 2011ra bitarteko aldirian, agenteak zertxobait metatu egin dira Bizkaian, nahiz eta, biztanleko ratioak kontuan hartuz gero, erakusketa-gelaren presentzia handiagoa den Gipuzkoakoa.

EAEan antolatutako erakusketen erdiak baino gehiago Bizkaian egin dira, % 32,0 Gipuzkoan, eta gainerako % 10,9a Araban. Agenteen kopuruaren kasuan bezala, ikus daiteke jarduera Bizkaian biltzeko joera dagoela, 2009ko eta 2011ko datuen arteko alderaketa egitean.

39. irudia. Ikusizko arteetako ekoizleak, eta ikusizko arteetako erakusketa-gelak eta galeriak, lurralde historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009-2011



40. irudia. Ikusizko arteetako ekoizpenak eta erakusketak, lurralde historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009-2011



Salmentek sortutako diru-sarreraren bolumenaren arabera sailkapenak erakusten du galerien sektoreko protagonistak saltoki txikiak direla: galerien % 76,9k 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu, eta enpleguaren % 63,4 biltzen du. Beste muturrean, 100.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten galerien % 23,1 dago: horiek guztizko diru-sarreraren % 68,2 sortzen dute, eta enpleguaren % 36,6 biltzen.

41. irudia. Galeriak, diru-sarreraren tarteen, guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2011

	2009					2011				
	Agenteak		Salmenten- gatiko diru- sarrerak	Langileak		Agenteak		Salmenten- gatiko diru- sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
100.000 € baino gehiago	5	19,2	49,8	29,6	2,6	6	23,1	68,2	36,6	2,3
100.000 € baino gutxiago	21	80,8	50,2	70,4	1,5	20	76,9	31,8	63,4	1,2
Guztira	26	100,0	100,0	100,0	1,7	26	100,0	100,0	100,0	1,4

Ikusizko arteak erakusteko zentroen % 78,4k 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu, eta % 15,7k 500.000 eurotik gorakoak; azken horiek, halaber, mota horretako zentroek sortutako guztizko diru-sarreraren % 79,6 biltzen dute. 2009ko datuekin alderatuta, ikus dezakegu igo egin direla bai diru-sarrera handiak dituzten agenteen kopurua, bai horien garrantzi erlatiboa, eta jaitsi egin direla diru-sarrera txikiagoak dituzten agenteen kopurua eta horien garrantzi erlatiboa.


42. irudia. Ikusizko arteak erakusteko zentroak, diru-sarreraren tarteen, guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2011

	2009					2011				
	Agenteak		Diru- sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru- sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
500.000 € baino gehiago	6	11,8	68,2	51,6	0,8	8	15,7	79,6	55,4	3,5
100.001 €-tik 500.000 €-ra	3	5,9	6,4	7,0	1,1	3	5,9	4,6	6,8	1,1
100.000 € baino gutxiago	42	82,4	25,4	41,4	1,6	40	78,4	15,8	37,7	0,5
Guztira	51	100,0	100,0	100,0	1,0	51	100,0	100,0	100,0	1,0

• Ikus-entzunezkoen industria

EAEko ikus-entzunezko ekoizpen-etxeak Bizkaian (% 49,4) eta Gipuzkoan (% 45,6) daude batez ere. Jardueraren bolumen handiena Bizkaian dago, ikus-entzunezkoen % 57,0 ekoizten baita han, Gipuzkoan % 40, eta Araban gainerako % 3a. 2009ko datuekin konparatuta, Gipuzkoako ekoizpen-etxeek areagotu egin dute jarduera, Bizkaikoen aldean.

43. irudia. Ikus-entzunezko ekoizpen-etxeak eta jarduera, lurralde historikoaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009-2011



(1) Ikus-entzunezkoen ekoizpenaren zenbaketa egitean, kanpoan utzi dugu ETB, Bizkaian kokatua bera, guztizko ekoizpenean duen pisuak zaildu egingo lukeelako jardueraren lurralde-banaketaren azterketa orokorra egitea.

Agenteen % 19,2k milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak ditu, diru-sarreraren % 67,3 sortzen du, eta enpleguaren % 60,9 biltzen. Ehuneko hori tamaina handiko ekoizpen-etxeei dagokie, haien diru-sarrerak eta langile kopuruaren batez bestekoak (29,1) adierazten duten moduan. 2009tik 2011 ra bitarteko aldirian, batez besteko enplegua jaitsi egin da ia tarte guztietan; goi-mailako tartean bereziki, 36,1 enplegu izatetik 29,2 enplegu izatera igaro baita.

44. irudia. Ekoizpen-etxeak, diru-sarreraren tarteetan, guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2011

	2009					2011				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
1.000.000 € baino gehiago	13	15,9	68,4	57,2	36,1	15	19,2	67,3	60,9	29,2
500.001 €-tik 1.000.000 €-ra	17	20,7	16,2	18,7	9,0	13	16,7	16,0	14,7	8,1
250.001 €-tik 500.000 €-ra	17	20,7	9,2	9,8	4,7	22	28,2	12,2	15,9	5,2
100.000 €-tik 250.000 €-ra	20	24,4	5,1	10,1	4,1	10	12,8	3,0	4,0	2,9
100.000 € baino gutxiago	15	18,3	1,2	4,2	2,3	18	23,1	1,5	4,5	1,8
Guztira	82	100,0	100,0	100,0	10,0	78	100,0	100,0	100,0	9,2

Oharra: ETBren datuak ez dira jaso.

IKUSPEGIAK 2011



Zeharkako irakurketak

1. Asimetriak

Sektoreen datu globalek eta agenteen tipologia desberdinek kulturaren arloko errealitatera hurbiltzeko aukera ematen digute; ikuspegi orokorra eskaintzen digute, baina xehetasunik gabea, beharbada. Atal honetan, sektore bakoitzean dauden asimetriei begiratuko diegu, 80-20 araua edo Paretoen printzipioa aplikatuz, dauden desberdintasunak aurkitu ahal izateko; horretarako, ebaketa bat aplikatuko dugu diru-sarreraren handienak dituzten sektoreetako agenteen % 20en eta gainerako % 80aren artean. Logikoa denez, artifizio horrek diru-sarrerak pisu handia izatea eragiten du, baina eremu bakoitzean zenbateko eragina duen ikusten laguntzen du, eta sektoreen arteko desberdintasunak ere bistaritzen ditu. Horrela, elkarren osagarri diren bi begirada lortzen dira: alde batetik, diru-sarreraren handienak dituzten agenteen irudikapena eta, bestetik, agenteen multzoari dagokion bolumena.

Asimetriei eta metaketa-mailei ikuspegi globaletik begirata, sektore eta agente-tipologia guztietan eredu komunak daudela esan daiteke, 2009az geroztik berdintsu mantendu direnak: lehenik eta behin, nabarmentzekoa da ia kasu guztietan diru-sarreraren handienak dituzten agenteen % 20k agente-tipologia bakoitzeko diru-sarreraren % 60 baino gehiago biltzen duela –soilik galeriak daude % 60tik behera–. Horrela, orokorrean esan daiteke EAEko arteetan eta kultura-industrietan metaketa-maila handia dagoela, eta metaketa hori finkatzen ari dela.

Agenteen artean, joera desberdinak hautematen dira, denen portaera ez baita berdina izan. Tipologia batzuetan, asimetria-maila handitu egin da; beste batzuetan, berriz, joera kontrakoa izan da. Asimetriaren igoera nabarmenena galerietan eta ikusizko arteak erakusteko agenteetan izan da, 9,3 eta 6,7 puntuko igoera izan baitute diru-sarreraren metaketari dagokionez, hurrenez hurren. Bestalde, asimetriaren jaitsierei dagokionez, disko-saltokien kasua da aipagarriena, kasu horretan diru-sarreraren metaketa 12,2 puntu jaitsi baita.

Bigarrenik, ikus daiteke diru-sarreraren metaketa-maila handiena duten agenteak ikusizko arteak erakusteko zentroak direla. Horrela, metaketa handienaren sailkapenaren buruan, arte eszenikoetako jaialdiak, ikusizko arteak erakusteko zentroak, musika-sustatzaile pribatuak, arte eszenikoetako aretoak eta musika-sustatzaile publikoak daude. 2009ko datuekin alderatuta, kontzertu-aretoek hautsi egin dute joera hori.

Talde horrekin lotuta, esan daiteke distantzia handia dagoela erakusteko agenteen dimentsioari dagokionez arte eszenikoetako eremuan eta ikusizko arteetako eremuan. Musikaren kasuan ere gertatzen da hori; izan ere, kontzertu-aretoetan metaketa zertxobait txikiagoa den arren (% 68,9), musikaren eremuko erakusketak asimetria garrantzitsuak ditu, oro har, agenteen artean.

Kultura-saltokien agenteen artean, metaketa-maila desberdinak daude. Nahiz eta datuek adierazten duten disko-saltokien metaketa 2009koa baino txikiagoa dela (% 74 izatetik % 68,9 izatera igaro da), askoz ere handiagoa da liburu-dendetan eta galerietan dagoena baino (sailkapenaren amaieran dauden agente-tipologiak, eta beraz, asimetria-maila txikiena dutenak).

Bestalde, asimetria-mailaren sailkapenean 2009an elkarren ondoan kokatzen ziren agente ekoizleek (ikus-entzunezkoak, argitaletxeak eta arte eszenikoak) aldatu egin dituzte beren kokapenak 2011n; dena den, oraindik ere, diru-sarreraren handienak dituzten agenteen % 20k % 65etik gorako diru-sarrerak metatzen ditu.

Azkenik, interesgarria da agente publikoak edo agente pribatuak argi eta garbi nagusitzen diren tipologiaren arabeko asimetria-maila desberdinei erreparatzea. 2009an nahiz 2011n, titulartasun publikoa nagusitzen den tipologiek asimetria handia dute: horixe gertatzen da arte eszenikoetako programatzaileen (jaialdiak eta aretoak), musika-programatzaile publikoen eta ikusizko arteak erakusteko zentroen kasuan. Aitzitik, titulartasun pribatuaren presentzia handiagoko agenteak sailkapenaren beheko aldean daude, musika-sustatzaile pribatuak izanik salbuespen bakarra.

45. irudia. Agente-tipologiaren sailkapena, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20en diru-sarreraren metaketa-mailaren arabera. 2009-2011

2009		2011	
Agente-tipologia	Diru-sarreraren %-a	Agente-tipologia	Diru-sarreraren %-a
Arte eszenikoetako jaialdiak	81,5	Arte eszenikoetako jaialdiak	83,4
Musika-sustatzaile pribatuak	78,1	Ikusizko arteak erakusteko zentroak	82,8
Arte eszenikoetako aretoak	77,4	Musika-sustatzaile pribatuak	78,0
Ikusizko arteak erakusteko zentroak	76,1	Arte eszenikoetako aretoak	77,5
Musika-programatzaile publikoak	74,6	Musika-programatzaile publikoak	75,0
Kontzertu-aretoak	74,0	Argitaletxeak	71,1
Disko-saltokiak	74,0	Arte eszenikoetako ekoizleak	69,2
Ikus-entzunezko ekoizpen-etxeak (1)	72,1	Kontzertu-aretoak	68,9
Argitaletxeak	68,7	Ikus-entzunezko ekoizpen-etxeak (1)	68,8
Arte eszenikoetako ekoizleak	66,8	Disko-saltokiak	61,8
Liburu-dendak	62,0	Liburu-dendak	61,6
Arte-galeriak	50,5	Arte-galeriak	59,8


(1) ETB aintzat hartu gabe.

- **Arte eszenikoetako ekoizleak**

2009tik 2011ra, asimetria handitu egin da diru-sarrerei dagokienez nahiz enplegu-bolumenari dagokionez. Agenteen % 20en pisua nabarmena da sektorean: 16 konpainiak diru-sarreraren % 69,2 (8,7 milioi euro) eta enpleguaren % 47,6 (88,7 langile) biltzen dute.

Alabaina, horiek ekoizpenean duten pisua txikiagoa da: produzitutako ikuskizunen % 30,6 eta ustiatutakoen % 28,0. Litekeena da horrek sustatzen dituzten ekoizpenen ezaugarriekin lotura izatea, baliabideei dagokienez asmo handikoak direlako. Datu hori % 39,9raino igotzen da gauzatutako emanaldien kasuan.

46. irudia. Sektore-adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoetako ekoizleen % 20en pisu erlatiboa. 2009-2011




• Arte eszenikoetako programatzaileak

Arte eszenikoetako aretoei dagokienez, ukaezina da areto handiek emaitzetan duten eragina; hain zuzen ere horregatik, mapa polarizatua marrazten da agenteen % 20 horren eta gainerako % 80aren artean. Areto handiek programazio egonkorrak eskaini ditzakete, eta asmo handiko ekoizpenak kontratatu, eta horrek eragina izaten du publikoaren erantzunean. Hiriburuetan egoten dira kokatuta, eta biztanle gehieneko udalerrietan. Asimetria oso nabarmena da arte eszenikoetako aretoen artean: 15 aretok diru-sarreraren guztizko bolumenaren % 77,5, enpleguaren % 75,0 eta ikusleen % 68,8 hartzen dute.


Ikuskizun eszenikoen eskaintzari dagokionez, 15 areto horien itzala handia da oraindik ere, eta asimetria handitu egin da 2009aren aldean, baina datuek mapa orekatuagoa marrazten dute: ikuskizunen % 37,1 programatu dute, eta emanaldien % 50,4.

47. irudia. Sektore-adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoen areto programatzaileen % 20en pisu erlatiboa. 2009-2011



Orokorrean, jaialdien kasuan ere areagotu egin da asimetria. Sailkapenean ikus daitekeenez, diru-sarreraren metaketaren aldetik asimetria handiena duen agente-tipologia da. Diru-sarrerei begiratzen badiegu, 7 jaialdik arte eszenikoetako programatzaileen profilararen guztizko diru-sarreraren % 83,4 biltzen dute. Horrez gain, jaialdietan aritzen diren 10 langiletik 6k garatzen dute beren jarduera 7 agente horietan. Bestalde, agente horiek jaialdi guztien eskaintza eszenikoan duten pisua % 34,5 da ikuskizunen kasuan, eta % 41,1 programatutako emanaldietan.

48. irudia. Sektore-adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoetako jaialdien % 20en pisu erlatiboa. 2009-2011




• Liburu-dendak eta argitaletxeak

Liburu-denden asimetria-maila ia ez da aldatu azken bi urte hauetan; ezer adieraztekotan, ikusten da asimetria-maila hori zertxobait jaitsi egin dela. Diru-sarrera handienak dituztenen taldea osatzen duten 20 liburu-dendek eragin handia daukate diru-sarreretan (guztizkoaren % 66,8; hots, 33,4 milioi euro) eta liburu-salmentetan (% 64,8). Liburu-denda horietako gehienak kateetako kide dira, baina bada liburu-denda independente bat edo beste ere. Saldutako liburuei dagokienez, establezimendu horietan 10 liburutik ia 7 saltzen dira.

Agente-talde horrek sektoreko enpleguan duen eragina ere kontuan hartzekoa da, EAEko liburu-dendetako 307,8 enpleguan ia erdiak talde horretan biltzen baitira.

49. irudia. Sektore-adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten liburu-denden % 20en pisu erlatiboa. 2009-2011




Argitaletxeen eremuan, hainbat joera izan dira. Diru-sarreraren atalean, asimetria igo egin da, baina jardueraren atalean jaitsi, nahiz eta azpimarratzeko modukoa izaten jarraitzen duen.

Diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20 osatzen duten 8 argitaletxeek 24,9 milioi euroko diru-sarrerak izan dituzte (sektorearen guztizko bolumenaren % 71,1); era berean, liburu-salmentagatiko diru-sarreraren 10 eurotik 7 jaso dituzte. Talde horrek argitaletxe guztietako langileen % 52 enplegatzen du.

Asimetria nabarmen murriztu da berritasun gisa argitaratutako tituluetan nahiz liburuetan. Hala eta guztiz ere, horien ekoizpenak badu eraginik talde osoan: tituluaren % 49,4 eta liburuen % 62,4. Haien tiradak, halaber, gainerako argitaletxeenak baino handiagoak dira.

50. irudia. Sektore-adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten argitaletxeen % 20en pisu erlatiboa. 2009-2011




• Musika-programatzaileak

Musika-programatzaile publikoek oso asimetria handia daukate, eta ez dute aldaketa garrantzitsurik izan diru-sarreraren eta enpleguaren eremuetan. Programatzaile publikoen taldean diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20 osatzen duten 14 udal handiek eta jaialdiek 13,4 milioi euroko bolumen ekonomikoa sortzen dute (guztizkoaren % 75,0), eta tipologia horretako langileen erdiak inguru biltzen dituzte.


Programatutako kontzertuei dagokienez, haien pisua handitu egin da 2009an zutenarekin alderatzen badugu, % 39,2 izatetik % 44,7 izatera igaro baita; nolahi ere, ikusleak erakartzeko gaitasunak pisua galdu du talde osoan, % 78,5 izatetik % 65,6 izatera igaro baita.

51. irudia. Sektore-adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten musika-programatzaile publikoen % 20en pisu erlatiboa. 2009-2011




Sailkapenean ikusi bezala, asimetria handiena duten agenteen artean sustatzaile pribatuak nabarmentzen dira: % 20 hori osatzen duten 6 agenteen eragina oso garbia da diru-sarreretan (guztizkoaren % 78), enpleguan (% 65,1) eta ikusleengan (guztizkoaren % 71,9). Hain zuzen ere, ikusleen kasuan igo da gehien asimetria, nahiz eta 2009an ere handia zen asimetria hori.

52. irudia. Sektore-adierazleetan musika-sustatzaile pribatuen % 20en pisu erlatiboa. 2009-2011



Kontzertu-areto nagusiek sortzen duten jarduera programatutako kontzertuen laurdena da, baina asimetria sortzen da aretoen % 20k diru-sarreraren % 70 inguru lortzen duelako, eta enpleguaren erdia sortzen. 2009arekin alderatuta, ikus daiteke areto horiek pisua galdu dutela globalean, ikusleen % 52 biltzetik % 39,3 biltzera igaro baitira.


53. irudia. Sektore-adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten kontzertu-aretoen % 20en pisu erlatiboa. 2009-2011



• **Disko-saltokiak**

Nahiz eta datuek garbi erakusten duten zer-nolako eragina daukaten disko-saltoki handiek sektore osoan, 2009ko datuekin alderatuta, asimetria jaitsi egin da agente-tipologia horretan. Dena den, diru-sarrera gisa lortutako 10 eurotik 6, agenteen % 20en bloke horretan bildutako lau saltokiek sortzen dituzte. Sektoreko langileen erdiak talde horretan daude, eta haiei dagokie EAEn saldutako disko guztien % 73,4.


54. irudia. Sektore-adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten disko-saltoki agenteen % 20en pisu erlatiboa. 2009-2011



- **Ikusizko arteetako agenteak**


Diru-sarreren aldetik asimetria txikiena duen agente-tipologia den arren, hain zuzen ere sektore horretan igo da gehien asimetria, bai diru-sarrerei dagokienez, bai salmentengatiko diru-sarrerei dagokienez. Bestalde, sektorearen berezko ezaugarrien ondorioz (enpresa-egitura txikiak), eta sustatzen dituzten erakusketen denboraldiaren egutegiak baldintzatuta, enpleguan eta antolatutako erakusketetan duten pisua (guztizkoaren % 28,5 eta % 18,5, hurrenez hurren) hobeto egokitzen zaio beren agente kopuruari dagokion mailari.

55. irudia. Sektore-adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten arte-galerien % 20en pisu erlatiboa. 2009-2011



Ikusizko arteen erakusketa-gela izendapenaren barruan, agente mota asko daude: hala foru-aldundietako eta finantza-erakundeetako areto handiak, nola udalerrri txikietan kokatutakoak. Aniztasun horrengatik, hain zuzen ere, diru-sarrerei dagokienez agenteen % 20ko taldea osatzen duten 10 aretoek guztizko diru-sarreren % 82,2 eta enpleguaren % 59,3 biltzen dituzte. Gauzak horrela, aretoen arteko desberdintasunen jatorria ez da erakusketa kopurua, areto handiek eta txikiak antzeko egutegiak baitituzte, baizik eta artistei, katalogoei, lekuei eta abarrei dagokienez antolatzen dituzten erakustaldi motak.

56. irudia. Sektore-adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten erakusketa-aretoen % 20en pisu erlatiboa. 2009-2011




• **Ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeak**

ETB estatistikan barruan dagoen arren, azterketa honetan kontuan ez hartzea erabaki dugu, haren pisua erabat erabakigarria delako, eta daukan eragina oztopo delako gainerako agenteen ezaugarriak zedarritzeko. ETB EAeko ikus-entzunezkoen motorra da; haren ekarpena diru-sarreraren % 69,5 eta enpleguaren % 48,5 da.

2009ko datuekin alderatuta, ez da aldaketa esanguratsurik ikusten. Diru-sarrera handienak dituztenen % 20 osatzen duten 16 ekoizpen-etxeek sektoreko diru-sarreraren hamar eurotik zazpi biltzen dituzte; bestalde, enpleguan duten pisua ere adierazgarria da, hamar langiletik sei enplegatzen dituelako. Beraz, egitura industrializatuenak dituztenak dira ekoizpen-etxe horiek.

Ekoizpenen gutzitza duen pisu txikiak (% 12,3) lotura zuzena du sortzen dituzten ekoizpenen ezaugarriekin: ekoizpen-etxe handiek proiektu gutxi bultzatzen dituzte, baina dimentsio handikoak.

57. irudia. Sektore-adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeen % 20en pisu erlatiboa (1). 2009-2011




(1) ETB aintzat hartu gabe.

2. Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria

Honako hau hartzen da zuzeneko kulturatzat: zuzenean gozaten diren arte eszenikoekin, musikarekin eta ikusizko arteekin lotutako adierazpenak, ekoizteko eta kontsumitzeko orduan hainbat desberdintasun dituztenak liburugintzak, diskogintzak eta ikus-entzunezkoen kultura-industriak sortzen dituzten produktuekiko. Serieko ekoizpenaren edo bakarra izatearen arabera egiten den ohiko bereizketa areagotu egin da teknologia digitalak ekoizteko, kopiatzeko eta kontsumitzeko eskaintzen dituen aukerengatik; teknologia digitalak, gainera, zuzenean eragiten du kultura erreproduzigarriaren erdi-erdian.

2011n, zuzeneko kulturaren 395 agente (% 61,6) eta kultura erreproduzigarriaren 246 agente zeuden (guztizkoaren % 38,4). 2009ko datuekin alderatuta, egiaztatzen da agente kopuruaren jaitsiera kultura erreproduzigarriarekin lotutako agenteak galdu direlako gertatu dela batez ere. Era berean, hiru lurraldeetan zertxobait igo egin da zuzeneko kulturaren jarduten duten agenteen kopurua.


58. irudia. Zuzeneko kulturaren agenteak eta kultura erreproduzigarriaren agenteak, lurralde historikoaren arabera. Absolutuak eta ehunekoak. 2009



Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, kultura erreproduzigarriaren agenteek ia bikoiztu egiten dituzte zuzeneko kulturaren jarduten dutenen diru-sarrerak eta langileak. Termino absolutuetan, kultura erreproduzigarriaren agenteen diru-sarrerak 294,9 milioi eurokoak izan dira; zuzeneko kulturaren agenteenak, berriz, 128,8 milioi eurokoak. Kultura erreproduzigarriarekin lotuta, 1.923,1 agente ari dira lanean; zuzeneko kulturaren kasuan, 994,8.


Aztertutako aldiaren sortzen dituzten diru-sarreraren eta enpleguaren banaketari dagokionez, ez dugu aldaketa esanguratsurik hauteman kultura erreproduzigarriaren pisuaren eta zuzeneko kulturaren pisuaren artean.

59. irudia. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak eta diru-sarrerak (milioi euro), zuzeneko kulturaren eta kultura erreproduzigarriaren agenteen arabera. Absolutuak eta ehunekoak. 2009-2011



Titulartasunari dagokionez, kultura erreproduzigarria osatzen duen industria pribatua da ia bere osotasunean, eta, dauzkan ezaugarrien ondorioz, banaketak ia ez du aldaketarik izan aztertutako epealdian. Zuzeneko kulturaren alde txiki batzuk hautematen dira agente pribatuen kasuan (2009an % 35,1 izatetik 2011n % 32,9 izatera igaro dira), eta elkarrean zein fundazioen kasuan (% 12,9tik % 14,9ra igo dira).

60. irudia. Zuzeneko kulturaren agenteak eta kultura erreproduzigarriaren agenteak, titulartasunaren arabera. Absolutuak eta ehunekoak. 2009-2011



3. Arteen eta kultura-industrien bolumen ekonomikoaren bilakaera

Estatistikaren edizio berriari esker, oraingo honetan, eta lehenengo aldiz, agente-tipologia guztietan eskura ditzakegu arteen eta industrien bolumen ekonomikoaren bilakaeraren emaitzak. Horietako batzuei dagokienez hiru urtetako (2007, 2009 eta 2011) datuak daudenez, bilakaerak sendotasuna irabazten du.

Agentearen araberako diru-sarreraren batez bestekoari begiratuz, EAEko kultura-agenteek dimentsio ekonomikoari dagokionez izan duten bilakaera azter dezakegu. Emaitzek erakusten digutenaren arabera, kultura-agenteen batez besteko diru-sarrerak jaitsi egin dira oro har, 2009ko datuekin alderatuta, eta batez besteko langile kopurua murriztu egin da kasu gehienetan.

Arte eszenikoetan, batez besteko diru-sarrerek beheranzko joera dute 2007az geroztik. 2007tik 2009ra bitarteko aldirian jaitsiera handiagoa izan zen arren, 2011ko emaitzek berretsi egiten dute beheranzko joera hori. Ekoizleen artean, pribatuak dira nagusi, eta haien artean izandako jaitsiera ez da 2009koarekin alderatuta oso esanguratsua; edonola ere, kontuan hartzen badugu ekoizleen kopurua 84 izatetik 80 izatera igaro dela, zailtasun-egoeran daudela ikusten da. Horri gehitu behar zaio langileen batez bestekoa jaitsi egin dela; izan ere, 2009an 2,8 ziren, eta 2011, aldiz, 2,3.

Programatzaileei dagokienez, beren batez besteko diru-sarrerak % 9,9 jaitsi dira 2009ko datuekin alderatuta, eta urte horretan ere murriztu egin zitzaizkien. Programatzaile gehienak publikoak dira, eta beheratu egin dituzte beren aurrekontuak; ondorioz, haien diru-sarrerak murriztu egin dira, eta langileen batez besteko kopurua gutxitu (orain, batez bestekoa 2 pertsonakoa da).

Liburugintzaren eremuan, datuek, hasiera batean, kontraesanekoak dirudite. Batez besteko diru-sarrerak eta batez besteko langile kopurua igo egin dira liburu-dendetan, eta jaitsi argitaletxeetan. Horrek badu azalpenik: jarduten duten liburu-denden kopurua nabarmen murriztu delako gertatu da halako igoera liburu-dendetako batez besteko diru-sarreretan eta langileen batez bestekoan; batez ere, kontuan hartzen bada dimentsio txikienekoek utzi egin dutela jarduera, eta horrek areagotu egiten dituela batez besteko diru-sarrerak.

Argitaletxeei dagokienez, agente kopurua berdina den arren, batez besteko diru-sarrerak % 8,5 murriztu dira, eta langileen batez bestekoa % 15,4 gutxitu.

Zuzeneko musikari dagokionez, bilakaerari buruzko datuak negatiboak dira. Programatzaile publikoen, sustatzaile pribatuen eta aretoen batez besteko diru-sarrerak % 4,7, % 5,1 eta % 30,5 jaitsi dira, hurrenez hurren. Bereziki larria da kontzertu-aretoen batez besteko diru-sarreraren jaitsiera. Kasu guztietan, halaber, batez besteko enplegua murriztu egin da; beraz, ondoriozta dezakegu zuzeneko musika-agenteek dimentsioa galdu dutela.

Diskoetxeen kasuan, agente gutxi daudenez, zaila da sektorearen bilakaerari buruzko irakurketa egitea; enpresa-ekimen apurren mende dagoela esan genezake. Hortaz, nahiz eta datuek erakusten duten batez besteko diru-sarrerak eta batez besteko langile kopurua igo egin direla, EAEn 6 diskoetxe izatetik 5 diskoetxe izatera igaro gara, eta batez besteko dimentsioa oraindik txiki egia da halako merkatu nahasian gaitasun handiagoz lehiazeko.

Disko-saltokien datuek garbi erakusten dute zailtasun ekonomikoak daudela musikaren merkaturatze tradizio-nalenerako: disko-saltokiek batez besteko diru-sarreraren % 46,9 eta langileen % 13,3 galdu dituzte bi urtean.

Ikusizko arteen kasuan, agente-tipologia bakoitzaren datuek logika desberdinei erantzuten diete. Ekoizleei dagokienez, diskoetxeekin gertatzen den bezala, oso agente gutxi direnez, batez besteko datuek garrantzi txikia daukate. Bestalde, erakusketa-gelek –ekimen publikoa nagusitzen da horietan– batez besteko dimentsioa irabazi dute diru-sarrerei dagokienez nahiz langileei dagokienez.

Arte-galerien datuak kontraesanezkoak dira: batez besteko diru-sarreretan, irabaziak handitu egin dituzte, baina jaitsi egin dute batez besteko langileen kopurua. Kontuan izan behar da enpresa-egiturak oso txikiak direla. Batez besteko diru-sarrerak igo badira ere, soilik 88.800 eurokoak dira, eta langileen batez bestekoa 1,4 da, galeria bakoitzeko.

61. irudia. Diru-sarreraren batez bestekoa, agente-tipologiaren arabera. 2007-2011

Sektorea	Agente-tipologia	2007	2009	2011	2009-2011 ald.
		Milako eurotan	Milako eurotan	Milako eurotan	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	188,4	157,8	157,1	-0,4%
	Programatzailea	396,9	355,8	320,5	-9,9%
Liburugintza	Argitaletxea		1.005,2	920,1	-8,5%
	Liburu-denda		522,4	554,1	6,1%
Musika	Orkestra		6.497,0	5.917,1	-8,9%
	Programatzaile publikoa		275,4	262,5	-4,7%
	Sustatzaile pribatua		962,9	913,8	-5,1%
	Kontzertu-aretoa		269,7	187,4	-30,5%
	Diskoetxea		341,6	429,6	25,8%
	Disko-saltokiak		294,0	156,1	-46,9%
Ikusizko arteak	Ekoizlea	236,3	1.164,0	860,0	-26,1%
	Erakusketa-gela	68,0	129,6	172,1	32,8%
	Arte-galeria	69,9	71,6	88,8	24,0%
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea		2.633,0	2.523,9	-4,1%

62. irudia. Urteko lanaldi osoko langile baliokideen batez bestekoa, agente-tipologiaren arabera. 2007-2011


Sektorea	Agente-tipologia	2007	2009	2011	2009-2011 ald.
		Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	2,7	2,8	2,3	-17,9%
	Programatzailea	2,1	2,1	2,0	-4,8%
Liburugintza	Argitaletxea		5,2	4,4	-15,4%
	Liburu-denda		2,9	3,1	6,9%
Musika	Orkestra		70,3	71,4	1,6%
	Programatzaile publikoa		1,2	1,0	-16,7%
	Sustatzaile pribatua		5,0	4,6	-8,0%
	Kontzertu-aretoa		2,6	2,5	-3,8%
	Diskoetxea		2,6	3,3	26,9%
	Disko-saltokiak		1,5	1,3	-13,3%
Ikusizko arteak	Ekoizlea	3,0	5,2	6,0	15,4%
	Erakusketa-gela	1,0	0,8	1,0	25,0%
	Arte-galeria	1,4	1,7	1,4	-17,6%
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea		17,7	17,7	0,0%

4. Euskarazko kultura

Testuingurua

EAEko hizkuntza-errealitateak³ merkatu mugatua eskaintzen du euskarazko kultura-produktuetarako. EAEko 16 urteko edo hortik gorako biztanleriari erreparatzen badiogu (1,87 milioi pertsona), erdiek baino gehiagok ez dute euskaraz hitz egiten ezta euskara ulertzen ere; beraz, euskararen barne-merkatua 922.000 pertsonakoa da, eta horietatik 322.000 pertsonak soilik ulertu egiten dute euskara, baina ez hitz egin. Lurralde historikoaren arabera, desberdintasun handiak ditugu: % 49,9 elebidun Gipuzkoan (300.000 pertsona), % 25,4 elebidun Bizkaian (254.000 pertsona) eta % 16,8 elebidun Araban (46.000 pertsona).

63. irudia. Hizkuntza-gaitasuna, lurralde historikoaren arabera. 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren gaineko ehunekoak. 2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 2011.

³ Errealitate hori testuinguruan kokatzeko 2011ko V. Inkesta Soziolinguistikotik bildu dira datuak.

Euskara, arte eszenikoetan


Euskarak arte eszenikoetan duen pisua nabarmen aldatzen da ekoizpenari eta erakusteko zentzoei dagokionez, baita hiru lurraldeetan duen banaketan ere.

Euskarak protagonismo handia du EAEko konpainien antzerki-ekoizpenean: herena (% 33,7) euskaraz egiten da, eta % 30,6 euskaraz eta gaztelaniaz. Ekoizpenak zuzeneko harremana du hartzaile izango den merkatuarekin: antzezpenen % 68,5 EAEn eskaintzen da. Gipuzkoako antzerki-konpainien ekoizpena nabarmendu behar da bereziki, hamar ikuskizunetik zortzi euskaraz produzitzen baitira.


Programazio eszenikoari dagokionez, haren presentzia EAEko areto eta jaialdietako hiru antzezenetik batera murrizten da (% 30,6). Euskarazko antzezan bat ikusteko aukera handiagoa da Gipuzkoan (emanaldien % 43,7), Bizkaian eta Araban baino (antzezpenen % 25 inguru).

64. irudia. Euskararen presentzia arte eszenikoetako ekoizpenean eta programazioan, lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak. 2011

Euskaraz produzitutako antzezanak ⁽¹⁾



Euskaraz programatutako antzezan eszenikoak



(1) Euskarazko eta gaztelaniazko ekoizpena jaso da.

Arteeszenikoak erakusten dituzten zentzoei profila erabat baldintzatzen du euskarak programazioan presentzia handiagoa edo txikiagoa izatea. Antzerki-aretoek jaialdiek baino gehiago programatzen dute euskaraz (emanaldien % 34,2 kasu batean; % 19,2, bestean). Aretoen artean, euskararen pisua areagotu egiten da txikietan, programatzen diren antzezanen erdiak inguru euskaraz egiten baitira (% 49,4). Kontuan izan behar da, bestalde, profil horretan hamar antzezanetik zazpi EAEko konpainienak direla, eta ikuskizun asko haurrentzat direla. Haurrak dira, hain zuzen ere, euskarazko antzerkiaren ikusle nagusiak.

65. irudia. Arte eszenikoetako programatzaileek programatutako euskarazko emanaldiak, tipologiaren arabera. Absolutuak, ehunekoak eta emanaldien batez bestekoa antzoki bakoitzeko. 2011


Agente-tipologia	Euskarazko emanaldiak		Guztizko emanaldiak	
	Maizt.	%	Batez bestekoa	Maizt.
Antzoki handiak	168	16,3	33,6	1.028
Antzoki ertainak	308	36,8	14,0	837
Antzoki txikiak	525	49,4	10,7	1.062
Antzokiak, guztira	1.001	34,2	13,2	2.927
Jaialdiak	179	19,2	5,4	930
GUZTIRA	1.180	30,6	10,8	3.857

Euskara, ikus-entzunezkoetan

EAEEn, ikus-entzunezkoen hamar ekoizpenetik 4 inguru euskaraz egiten dira; hots, soilik euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz. Gipuzkoako enpresen ekoizpena nabarmentzen da bereziki (% 57,6) Bizkaikoekin alderatuta (% 29,8). Kontuan izan behar da datu horietan ez dela bildu ETBren ekoizpena.

66. irudia. Euskararen pisu erlatiboa ikus-entzunezkoen ekoizpenean, lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak. 2011

Euskarazko ikus-entzunezkoen produkzioak




(1) Euskarazko eta gaztelaniazko ekoizpena jaso da.

(2) Ez da ETBren ekoizpena jaso.

Euskarak pisu berezia du zinearen eta telebistaren ekoizpen-etxeetan. Izan ere, zinema-arloko ekoizpen-etxeen hamar ekoizpenetik lau euskaraz egin ziren, eta euskaraz eta gaztelaniaz egindakoak batuz gero, % 70,3. Telebistako ekoizpen-etxeen kasuan, ekoizpenaren % 45,9 euskara hutsean egiten da.

Beste muturrean, publizitatearen ekoizpen-etxeak daude; horien lanetan, euskararen presentzia txikiagoa da (% 22,2).

67. irudia. Euskararen pisu erlatiboa ikus-entzunezkoen ekoizpenean, ekoizleen arabera. Ehunekoak. 2011




(1) ETBren ekoizpena jaso da.

Euskara, argitaletxeen ekoizpenean⁴

Euskarazko argitalpenak EAEko argitaletxeek argitaratutako produktuen % 36,9 dira. Euskarazko ekoizpena diru-sarreraren aldetik erdiko tartean (100.000-250.000 euro) kokatutako argitaletxeetan nagusitzen da.

68. irudia. Euskararen pisu erlatiboa argitaratze-ekoizpenean, argitaletxearen profilaren arabera. Ehunekoak. 2011



⁴ Joan Mari Torrealdaik egiten du euskarazko literatur ekoizpenaren gaineko beren-beregizko azterketa. Euskal Liburugintza 2011 azken azterketa Jakin aldizkariaren 192. zenbakian argitaratua izan da. Horretaz gain, Euskadiko Editoreen Gremioak ere euskarazko edizioaren azterketak egiten ditu.

5. Ekimen publikoaren pisua eta harekiko mendekotasuna

Mendekotasun publikoaren azterketa egiteko orduan, titulartasun pribatuko agenteak soilik hartzen dira kontuan. Emaitzek adierazten dutenaren arabera, orokorrean, EAEko kultura-agente pribatuek mendekotasun-maila txikia dute, horien diru-sarreraren % 6,1 soilik eratoritzen baita diru-laguntzetatik; gainera, mendekotasun hori murriztu egin da azken urte hauetan. Nolanahi ere, kontuan izan behar da mendekotasun publikoa ez dela jasotako diru-laguntzetatik soilik eratoritzen; administrazioak, zerbitzuak kontratatzerakoan, agente pribatuen bezero gisa ere jarduten du. Horren inguruko informaziorik ez dugunez, gure azterketa diru-laguntzetan oinarrituko da, baina emaitzak zuhurtziaz irakurri beharko dira, noski.

Arte eszenikoetako sektoreak du bere agente pribatuen artean arlo publikoarekiko mendekotasun-maila handiena: programatzaileen diru-sarreraren % 30,1 diru-laguntza publikoetatik dato⁵, baita ekoizleen diru-sarreraren % 14,5 ere. Konpainiek, hain zuzen ere, diru-laguntzak jasotzeaz gain, mendekotasun publiko nabarmena dute, erlazio are zuzenagoa dutelako programatzaile publikoekin, ikuskizunak kontratatzean.

Liburugintzaren sektoreak oso diru-laguntza gutxi jasotzen ditu EAEn. Diru-laguntzen bidez lortzen dituzten diru-sarrerak hutsalak dira liburu-denden eta argitaletxeen kasuan: soilik % 4,9ra iristen dira; 2009ko datuetatik behera, beraz.

Era berean, musika-sustatzaileak (arte eszenikoetako konpainiak, esaterako) kontratazio publikoaren oso mende daude. Agente mota horretan, diru-laguntzagatiko diru-sarreraren pisua % 7,9 da, 2009koa baino txikiagoa. Kontzertu-aretoen eta disko-saltokien kasuan, diru-laguntzek haien diru-sarreraren egituraren duten garrantzia marjinala da argi eta garbi. Azkenik, diskoetxeetan, diru-laguntzak diru-sarreraren % 4 inguru baino ez dira.

Arte-galerien diru-sarreraren % 3,4 diru-laguntza publikoetatik dator, baina ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeen kasuan, finantziario publikoaren maila handiagoa da: % 10,9. Bi kasuetan, 2009ko datuekin alderatuta, jaitsi egin da haien mendekotasun publikoa.

Espero bezala, elkarteek eta fundazioek sektore pribatuak baino mendekotasun-maila handiagoa dute, horien guztizko diru-sarreraren % 27,8 diru-laguntza publikoetatik datorrelako. Mendekotasun-maila handiena duten elkarte eta fundazioak arte eszenikoetako programatzaileak dira (% 37,2), eta hurrengoak, arte eszenikoetako ekoizleak (% 34,6) eta musika-sustatzaile pribatuak (% 15,6). Beste muturrean, ikusizko arteak erakusteko aretoak daude; horietan, ekarpen publikoa ia ez da nabaritu ere egiten.

2009. urteari dagokionez, ikusizko arteak erakusteko aretoen mendekotasun publikoa nabarmen jaitsi da; nolahi ere, arte eszenikoetako agenteen artean, mendekotasun publikoko aldaketak ez dira oso garrantzitsuak izan

⁵ Agente-tipologia horretan, soilik 3 programatzaile pribatu biltzen direla nabarmendu behar da; beraz, datu horrek izan dezakeen adierazgarritasuna zuhurtziaz balioetsi behar da.

69. irudia. Agente pribatuen arlo publikoarekiko mendekotasuna, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera (1). Absolutuak eta ehunekoak. 2009-2011

Sektorea	Agente-tipologia	2009			2011		
		Agente pribatuak	Guztizko diru-sarrerak	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Guztizko diru-sarrerak	Ekarpen publikoak
		Maizt.	Milako eurotan	%	Maizt.	Milako eurotan	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	68	10.413,5	15,5	59	9.431,0	14,5
	Programatzailea	4	225,5	54,8	3	196,3	30,1
Liburugintza	Argitaletxea	36	37.638,7	5,3	36	34.591,4	4,9
	Liburu-denda	120	62.689,5	0,3	98	54.299,1	0,1
Musika	Sustatzaile pribatua	21	26.420,0	10,7	19	23.614,8	7,9
	Kontzertu-aretoa	22	6.130,7	1,7	23	4.399,4	1,5
	Diskoetxea	6	2.049,6	4,3	5	2.148,0	4,2
	Disko-saltokiak	26	7.643,2	0,1	26	4.059,3	0,0
Ikusizko arteak	Arte-galeria	26	1.861,0	7,3	26	2.309,8	3,4
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	81	69.658,0	11,9	77	59.989,4	10,9
Guztira		410	224.729,7	6,8	372	195.038,5	6,1

(1) Ez dira jasotzen agente pribaturik gabeko tipologiak edota sekretu estatistikoa urra dezaketen tipologiak.

70. irudia. Elkardeen eta fundazioen arlo publikoarekiko mendekotasuna, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera (1). Absolutuak eta ehunekoak. 2009-2011


Sektorea	Agente-tipologia	2009			2011		
		Agente pribatuak	Guztizko diru-sarrerak	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Guztizko diru-sarrerak	Ekarpen publikoak
		Maizt.	Milako eurotan	%	Maizt.	Milako eurotan	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	15	997,0	32,4	20	1.157,6	34,6
	Programatzailea	16	12.554,0	42,3	16	14.242,1	37,2
Musika	Sustatzaile pribatua	8	1.502,7	35,5	10	2.885,1	15,6
Ikusizko arteak	Erakusketa-gela	9	3.196,4	0,1	8	3.824,0	0,0
Guztira		48	18.250,1	33,8	54	22.108,8	27,8

(1) Ez dira jasotzen elkarterik eta fundaziorik gabeko tipologiak, ez eta sekretu estatistikoa urra dezaketen tipologiak ere.

Jarduera

Sektore publikoak agente kulturaletan duen pisua aztertzean beste ikuspegi bat sortu ahal da jardueraren arazoan. Erakunde publikoek sortutako jardueraren presentzia handiena duen eremua arte eszenikoetako emanaldiena da; izan ere, hamarretik zortzi agente publikoek programatzen dituzte, 2009an baino zertxobait gutxiagok. Ikusizko arteen eremuan, jarduera publikoaren presentzia nabarmentzekoa da, eta igo egin da 2009arekin alderatuta, urte hartan % 65,2 erakusketa egin baitziren, eta 2011n % 67,3. Era berean, kontzertuen programazioan ere igo da: EAEko musika-kontzertuen erdiak baino gehiago ekimen publikoak dira. Ikus-entzunezkoen eremuari dagokionez, kontuan hartu behar da arlo publikoak jardueran duen pisu handia ETBren presentziari eta pisuari dagokiola, txosten honen hainbat ataletan adierazi dugun moduan. Azkenik, arte eszenikoetako ekoizpena ekoizle pribatuen eta elkarte eta fundazioen eskuetan geratzen da ia oso-osorik –konpainiak, batez ere–.

71. irudia. Titulartasun publikoko agenteek egindako jardueraren pisu erlatiboa. Ehunekoak. 2009-2011



6. Berritzea eta nazioartekotzea

Inportazioa

Artista atzerritarren presentzia EAeko kultura-jarduerak nazioartera begira duen irekitze-mailaren adierazle gisa uler daiteke. Oro har, datuek erakusten dute EAeko artistak eta sortzaileak nabarmen nagusitzen direla kulturaren ekoizpen eta programazioan.

Nazioartekotze-maila handiena musika-programazioan dago, eta, bertan, artista eta talde atzerritarren presentzia 2009ko % 34,8tik 2011ko % 27,5era jaitsi da. Era berean, ekoizpenari dagokionez, musikaren sektorea ere irekita dago kanpoko merkatuetara, talde edo artista atzerritarren zati diren EAeko diskoetxeek egindako kopien % 22,7; 2009ko datuak baino zertxobait beherago. Kontuan izan behar da musika-kontsumoa ez dagoela zuzenean kontsumitzaileen hizkuntza-gaitasunaren mende, arte eszenikoen kasuan gertatzen den bezala, esaterako.


2011n, argitaletxeek apustu handia egin dute EAetik kanpoko egileen alde: argitaratutako liburuen % 43,6 beste autonomia-erkidegoetako egileenak dira, eta % 19,1 atzerritarrenak.

Emanaldi eszenikoen eremuan, % 13,7 konpainia atzerritarrek eskaini dituzte, eta % 40,3 beste autonomia-erkidegoetako taldeek. 2009ko datuekin alderatuta, ikus dezakegu euskal konpainien emanaldi kopurua jaitsi egin dela (% 51,9tik % 46,1 era).

Bestalde, ikusizko arteen sektorea da kanpo-merkatuetara gutxien irekitzen dena: antolatutako erakusketen % 68,8 EAeko artistenak izan dira, % 17,3 beste autonomia-erkidegoetako artistenak, eta % 13,9 atzerritarrenak⁶.

⁶ Puntu horri dagokionez, esan daiteke ikusizko arteetako ekoizleen eta ikusizko arteak erakusteko zentroyen estatistikak ez dituela museoak biltzen, museoak baitira EAetik kanpoko artisten lanak inportatzerakoan zeregin azpimarragarriena garatzen duten agente nagusiak.

72. irudia. Nazioartekotzeak kultura-programazioan eta -ekoizpenean duen pisua. Ehunekoak. 2009-2011




Kanpo-merkatuetan duten presentzia

EAEko arte eszenikoetako konpainiek presentzia txikia dute atzerrian: emanaldien % 6,1 beste Estatu batzuetan egiten da. Bestalde, Estatuan duten presentzia, garrantzi handiagokoa bada ere, murriztu egin da 2009arekin alderatuta, guztizko emanaldian % 29,5 izatetik % 26,9 izatera igaro baita.


Hizkuntza eszenikoen ezaugarriek eta lengoiaren garrantziak azaltzen du dantza-konpainiek antzerki-konpainiek baino presentzia handiagoa (pisu erlatiboan) izatea kanpoan. Nahiz eta 2009ko datuekin alderatzen badugu, presentzia hori jaitsi egin den, EAEko dantza-konpainien emanaldien hamarretik sei kanpoan egin dira, eta nahiko antzekoak dira Estatuan zein atzerrian eskainitako emanaldien pisuak.

73. irudia. Arte eszenikoetako ekoizpen-konpainiek eskainitako emanaldiak, lurraldearen arabera. Ehunekoak. 2009-2011




Argitaletxeen merkatua batez ere kanpoan dago. Argitaratutako hamar liburutik lau EAEn saltzen dira, baina % 45,7ren jomuga Estatu da, eta % 12,8rena atzerria.

74. irudia. Argitaletxeek saldutako liburuak (berritasunak + funtsa), jomugaren arabera (ehunekoa). 2011



EAEko kontzertuen sustatzaile pribatuek Estatuko merkatura jotzen dute batez ere (programatzen dituzten kontzertuen % 56,5). Atzerriko merkatura haien jardueraren % 6,6 da.

75. irudia. Sustatzaile pribatuek programatutako kontzertuak, programazio-tokiaren arabera (ehunekoa). 2011




Berritzea

Berritze-tasak (gutzizkoarekiko ekoizpen berriaren unitateak) kultura-produktu berriak merkaturatzeko egindako inbertsioari buruzko azalpena eman dezake. Datuen arabera, badirudi egungo testuinguruak ez duela horretarako bide ematen. Arte eszenikoetan ez ezik, industria diskografikoan ere nabarmen murriztu da 2009ko datuekin alderatuta; argitalpen-industriaren murrizketa ez da hain handia.

Argitalpen-industriak berritze-tasa handiagoa du (% 61,7) eta argitaratutako berritasunen kopurua argitaratutako guztizko tituluekin alderatuta jaitsi egin bada ere 2009tik hona, maila altuan dago oraindik ere, argitalpen-negoziaren egungo funtzionamenduaren arabera.

Industria diskografikoaren berritze-tasa, 2009koarekin alderatuta, % 14tik gora jaitsi bada ere, % 57,9 da. Bestalde, 2011n ustiatutako arte eszenikoetako hamar ikuskizunetik lau berriak dira, eta % 25,1 murriztu da tasa.

76. irudia. Berritze-tasa. Ehunekoak. 2009-2011




7. Generoa

2009an bezala, 2011n ere nolabaiteko desoreka dago EAEko kultura-sektorean lan egiten dutenen artean, gizonen presentzia emakumeena baino zertxobait handiagoa baita (% 54,6 eta % 45,4, hurrenez hurren). Nolanahi ere, egoera ezberdina da sektore batetik bestera.

Liburugintzaren sektorean eta ikusizko arteetako sektorean, emakumeen presentzia gizonena baino handiagoa da, nahiz eta bi kasuetan murriztu egin den 2009ko datuekin alderatuta. Liburugintzaren sektorean, emakumeak langileen % 59,3 dira, eta ikusizko arteetako sektorean % 59,2.

Gizonezko langileen ehunekorik handiena musikaren sektorean aurkitzen dugu (% 61,5), baina bi generoen presentzia orekatzen hasia da bertan. Joera hori bera izan dute ikus-entzunezkoen sektorean ere, gizonak % 57,7 baitira. Gizonen eta emakumeen arteko orekarik handiena arte eszenikoetako sektorean dago, nahiz eta gizonen presentzia zertxobait handiagoa den (% 54,5).

77. irudia. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sexuaren eta sektoreen arabera. Emakumeen ehunekoa. 2009-2011



Agente-tipologiaren araberako azterketak zehaztasun handiagoak eskaintzen ditu, eta kasu batzuetan sexuen arteko alde handiak daudela erakusten du. Kontzertu-aretoetan, nahiz eta oreka handiagoa izateko joera dagoen, hamar langiletik zazpi gizonak dira, eta musika-agenteen beste tipologietan ere proportzio horri eusten zaio.


Emakumeen presentzia handiena duten agente-tipologiei dagokienez, ez dira aurretik aipatutakoak bezain desoreka handiak gertatzen, baina nabarmenak dira liburu-denden kasuan (% 67,3) eta ikusizko arteak erakusteko zentron kasuan (% 63,1).

78. irudia. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sektoreen, agente-tipologiaren eta sexuaren arabera. Ehunekoak. 2009-2011

Sektorea	Agente-tipologia	2009		2011	
		Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
		%	%	%	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	53,6	46,4	53,8	46,2
	Programatzailea	50,9	49,1	55,2	44,8
Liburugintza	Argitaletxea	51,5	48,5	55,4	44,6
	Liburu-denda	33,1	66,9	32,7	67,3
Musika	Orkestra	64,5	35,5	63,5	36,5
	Programatzaile publikoa	51,0	49,0	44,3	55,7
	Sustatzaile pribatua	56,8	43,2	61,7	38,3
	Kontzertu-aretoa	79,5	20,5	71,7	28,3
	Diskoetxea	58,1	41,9	62,4	37,6
	Disko-saltokiak	71,4	28,6	65,4	34,6
Ikusizko arteak	Ekoizlea	28,8	71,2	46,7	53,3
	Erakusketa-gela	36,7	63,3	36,9	63,1
	Arte-galeria	41,5	58,5	42,3	57,7
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	60,0	40,0	57,7	42,3
Guztira		55,0	45,0	54,6	45,4


Kulturako langileen artean, lurralde bakar batean ere ez du emakumeen ehunekoak gizonena gainditzen. Lurralde batetik bestera ez dago desberdintasun nabarmenik; nolahi ere, Gipuzkoan dago gizonen presentzia handiena (% 55,8), eta ondoren Bizkaian (% 54,4); Araban, aldiz, ia orekatuta dago.

79. irudia. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. Emakumeen ehunekoa. 2009-2011



Nahiz eta 2009ko datuetan ematen zuen desberdintasun handia zegoela gizonezko langileen eta emakumezko langileen artean, titulartasunaren arabera, elkarteetan eta fundazioetan emakumeak nagusitzen zirelako, 2011ko datuekin ezin da horrelakorik esan. Agentearen titulartasunak ez du azaltzen sexu bakoitzak langileen artean duen pisua. Hala eta guztiz ere, emakumeen pisua handiagoa da titulartasun pribatukoaren artean, langileen ia erdiak baitira.

80. irudia. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sexuaren eta agenteen titulartasunaren arabera. Emakumeen ehunekoa. 2009-2011



IKUSPEGIAK 2011



Laburpena

Arteei eta Kultura Industrieari buruzko 2011ko Estatistikak hainbat sektoretako (arte eszenikoak, musika, ikusizko arteak, liburugintza eta ikus-entzunezkoak) 641 agenteren buruzko informazioa biltzen du. Egindako azterketak EAEko arteen eta industriaren egoerari, sektore bakoitzaren berezitasunei eta 2009tik aurrera izan duten bilakaerari buruzko ikuspegi globala eskaintzen du. Ezaugarri nabarmenen artean, honako hauek daude:

Arteek eta kultura-industriek 423,7 milioi euroko diru-sarrerak sortzen dituzte eta 2.917,9 pertsona enplegatzen dituzte.

Diru-sarreraren eta enpleguaren bolumenak kulturaren sektoreak EAEko ekonomian duen garrantzia islatzen du. Hala ere, 2009tik 2011ra bitarteko aldian, krisialdiak eragina izan du sektorean; izan ere, diru-sarreraren jaitsiera 45 milioi eurokoa izan da (% 9,6) eta 225,9 enplegu galdu dira (% 7,2).

Oro har, diru-sarreraren eta gastu globalen balantzea positiboa da, 14,6 milioi euroko marjinarekin. Diru-sarreraren % 3,5 osatzen du horrek; 2009ko datuetako antzeko emaitza, beraz. Agente pribatuak nagusitzen diren sektoreetako irabazi-marjinak zailtasunen adierazle dira.

Agente gehienak titulartasun pribatukoak dira, eta arlo publikoarekiko mendekotasun-maila txikia dute.

Agente pribatuen nagusitasunak (10etik 6 inguru) ez du isla nabarmenik diru-sarreraren eta gastuen banaketan; bai, ordea, okupazioan. Kulturaren alorrean, enplegu pribatuak jarraitzen du nagusi izaten, baina jaisteko joera agertzen hasi da: langileen % 12,7, bi urtean.

Agente pribatuek mendekotasun-maila txikia dute arlo publikoarekiko, eta mendekotasun hori, gainera, murriztu egin da azken urte hauetan. Agente horien diru-sarreraren soilik % 6,1 dator diru-laguntzetatik. Arte eszenikoetako sektorea da arlo publikoarekiko mendekotasun handiena duena; ondoren, ikus-entzunezko ekoizpen-etxeak eta musika-sustatzaileak daude. Argitaletxeek, diskoetxeek eta arte-galeriek batez bestekotik beherako diru-laguntzak jasotzen dituzte. Kontzertu-aretoei, liburu-saltokiei eta diskoetxeei ematen zaien laguntza marjinala da.

Dimentsio handieneko agenteek lurralde-metaketarako joera dute.

Orokorrean, lurralde-banaketa itxuratzen duen mapan, agenteen erdiak Bizkaian kokatzen dira, % 39,4 Gipuzkoan, eta % 10,6 Araban. Alabaina, 100.000 biztanleko agente-ratioaren bitartez agente-metaketa zehaztuz gero, banaketa orekatuagoa agertzen da: 35,9 Gipuzkoan, 27,7 Bizkaian eta 21,2 Araban.

Termino ekonomikoetan, Bizkaiak garrantzi handiagoa hartu du, eta kultura-agenteen diru-sarreraren % 69,6 biltzen du (2009an, % 68,7 biltzen zuen). Pisu handiena duten sektoreetako agente nagusiak (ikus-entzunezkoak, liburugintza, arte eszenikoetako programatzaileak eta musika-sustatzaileak) lurralde horretan kokatzen dira.

Agenteen ia erdiak hiriburuetan daude: Bizkaian eta Gipuzkoan, Araban baino orekatuagoa da banaketa (% 48,1 Bilbon; % 42,7 Donostian; % 76,5 Gasteizen).

Jarduera-metaketa eta diru-sarreraren metaketa maila garrantzitsua finkatu da denboran, agente gutxi batzuetan.

Asimetrien azterketak erakusten du, kasu guztietan, diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20k agente-tipologia bakoitzaren diru-sarreraren % 60 baino gehiago metatzen duela, arte-galerietan izan ezik. Asimetria-maila desberdina da kasu bakoitzean, baina guztietan metatu dira diru-sarrerak eta, neurri txikiagoan, enplegua.

Asimetria handienak emanaldiak erakusteko agenteetan eta titulartasun publikoko agenteetan ikusten dira. Sailkapenaren buruan, arte eszenikoetako jaialdiak eta ikusizko arteak erakusteko zentroak daude; horien % 80tik gorako diru-sarrerak metatu dituzte. Bigarren mailan, % 70etik gorako diru-sarreraren metaketarekin, musika-sustatzaile pribatuak, arte eszenikoetako aretoak, musika-sustatzaile publikoak eta argitaletxeak daude. Hirugarren maila arte eszenikoetako sustatzaileek, kontzertu-aretoek, ikus-entzunezkoen ekoizleek, disko-saltokiek, liburu-dendek eta arte-galeriek osatzen dute.

Joera desberdinak izan dituzte agente horiek: galerietan eta ikusizko arteak erakusteko zentroetan, asimetriak gora egin du, eta disko-saltokietan jaitsi egin da.

Zuzeneko kulturari lotutako agenteak nagusitzen dira.

Industrializazio-maila handieneko jarduerak dituzten agenteek pisu erlatibo txikiagoa dute (kultura erreproduzigarriko 246 agente eta zuzeneko kulturako 395 agente). Joerak erakusten duenez, kultura erreproduzigarriarekin lotutako agente kopuruak behera egin du.

Alabaina, ikuspegi ekonomikotik begiratuta, kultura erreproduzigarriaren agenteek ia bikoiztu egin dituzte zuzeneko kulturari jarduten dutenen diru-sarrerak eta enplegua.

2009ko datuekin alderatuta, diru-sarreraren eta enpleguen batez bestekoak behera egin du kasu gehienetan.

Arte eszenikoetan, batez besteko diru-sarrerek beheranzko joera dute 2007az geroztik. Nolanahi ere, 2007tik 2009ra bitarteko aldiak, jaitsiera zorrotzagoa izan da, eta 2011ko emaitzek baieztatu egiten dute joera hori.

Liburugintzaren eremuan, batez besteko diru-sarrerek eta batez besteko langileen kopuruak behera egin dute argitaletxeetan, eta liburu-dendetan izan den igoerak dimentsio txikiaren kopuru nabarmen murriztu izanari erantzuten dio.

Zuzeneko musikaren bilakaerari buruzko datuak negatiboak dira, bai diru-sarrerei dagokienez, bai enpleguari dagokionez. Disko-saltokien datuek erakusten dutenez, zailtasun ekonomikoak daude musikaren merkaturatze tradizionalenerako.

Euskarak presentzia nabarmena du antzerkigintzan, ekoizpen zinematografikoan eta telebistagintzan.

Euskarak protagonismo garrantzitsua du EAEko konpainien antzerkigintzan (% 64,3), zinema-ekoizpenetan (% 70,3) eta telebistagintzan (% 50,6). Argitaletxeen sektorean, liburuaren % 36,9 euskaraz argitaratzen da.

Ekoizpenean euskararen aldeko apustua egiteak erakusten du kultura-konpromisoa eta merkatu-konpromisoa dagoela ekoizleen aldetik. Horrek, nolana ere, badu loturarik merkatu txiki batean dauden laguntza publikoak lortzeko aukera izatearekin.

Emanaldiei dagokionez, EAEko areto eta jaialdietako hirutik batean baino ez dago euskara presente. Aipatu behar da eragin berezia duela areto txikietako programazioan, emanaldien % 49,4 euskaraz egiten baita. Euskarazko programazioari buruzko datuek eskaintzaren eta eskaeraren arteko berrelikadurari buruzko gogoeta egitera garamatzate: ikusleen ezaugarriek baldintzatu egiten dute programazioa, eta, era berean, eskaintzak kontsumo-arau batzuk finkatzen laguntzen du.

Euskal ekoizpenaren nazioartekotzea eta berritzea jaitsi egin dira.

Artista atzerritarren presentzia nabarmena da musika-programazioan, nahiz eta 2009ko % 34,8tik 2011ko % 27,5era jaitsi den. Ekoizpenari dagokionez, EAEko diskoetxeek egindako kopien % 22,7 talde edo artista atzerritarrena da; 2009an baino zertxobait gutxiago. Bestalde, EAEko argitaletxeek kaleratzen dituzten egile atzerritarren liburuak 2011n argitaratutakoen % 19,1 dira.

Kanpoko merkatuetan duten presentziari dagokionez, dantza-konpainiak nabarmentzen dira oraindik ere, 2009arekin alderatuta presentzia hori jaitsi egin den arren: hamar emanalditik sei, EAEtik kanpo. Argitaletxeen eta kontzertuen ekoizpen-etxe pribatuen salmentek asko gainditzen dute barne-merkatua.

Berritze-tasa (guztizkoarekiko ekoizpen berriko unitateak) nabarmen murriztu da 2009arekin alderatzen badugu, bereziki arte eszenikoen (% 25,1) eta industria diskografikoaren kasuan (% 14).

Kultura-enpleguan, generoaren araberako oreka aldakorrak daude, sektore bakoitzaren arabera.

EAEko kultura-sektoreko langileen artean, gizonen presentzia (% 55,6) emakumeena (% 45,4) baino pixka bat handiagoa da. Liburugintzaren sektorean eta ikusizko arteetako sektorean, emakumeen presentzia gizonena baino handiagoa da, nahiz eta bi kasuetan murriztu egin den 2009arekin alderatuta. Bestalde, musikan, gizonezko langileen ehuneko handiagoa da, baita ikus-entzunezkoen sektorean ere. Gizonen eta emakumeen arteko orekarik handiena arte eszenikoetako sektorean gertatzen da.

